



2012 URTEKO TXOSTENA

merca **B**ilbao


merca **B**ilbao

Barrio Ibarreta nº1
48970 Basauri, Bizkaia
Tlfn.: 944492758
Fax: 944406603

laburpena

or. 4-10

ikuspegia



Mercabilbaoren kudeaketa-ereduak gure bezeroei balio erantsia eragingo dioten konponbideak eskaintzea du oinarri; horrela, beharrezkoa den oreka ahalbidetzen dugu gure eragileen enpresa-interesen eta alderdi publikoak gizarteari oro har eskaini behar dizkion gardentasun, osasungarritasun eta lehia bermeen artean.

or. 11-17

talentua



Pertsonen inplikazio eta dedikazioarekin, kontrako abaguneei indar handiagoarekin aurre egin ahal izatea lortuko dugu.

or. 18-72

konpromisoa



Mercabilbaok ordezkatzan duen alderdi publikoaren eta haren eragileen arteko etengabeko lankidetzaren eta elkarrizketa, merkataritzako jardueraren garatzeko.

or. 73-83

indarguneak



...eta aparteko emaitza ekonomikoarekin, Mercabilbaok, eragileak buru dituela, ekin eta ekin dihardu haren eraginpeko eremuan, nekazaritza eta elikagaien industriako erreferente izateko posizioa indartzeko eta finkatzeko.

ikuspegia



Mercabilbaoren kudeaketa-ereduak gure bezeroei balio erantsia eragingo dioten konponbideak eskaintzea du oinarri; horrela, beharrezkoa den oreka ahalbidetzen dugu gure eragileen enpresa- interesen eta alderdi publikoak gizarteari oro har eskaini behar dizkion gardentasun, osasungarritasun eta lehia bermeen artean.

Presidentearen mezua

Atzeraldi ekonomikoko testuinguru orokor hau bistatik aldendu gabe, Mercabilbaoren urteko plan operatiboan jasotako 2012rako helburuak arrakastaz lortu direla esan dezakegu, aurreko ekitaldietako joerari eutsita. Azpimarratu nahi dut aparteko emaitza ekonomikoarekin, Mercabilbaok, eragileak buru dituela, ekin eta ekin dihardu haren eraginpeko eremuan, nekazaritza eta elikagaien industriako erreferente izateko posizioa indartzeko eta finkatzeko.

Bilakaera ekonomikoaren oinarri gisa merkataritzako jarduera garatzeko ahalegin horretan, funtsezkoa da Mercabilbaok ordezkatzeko duen alderdi publikoaren eta haren eragileen arteko lankidetzak eta elkarriketa. Elkar ulertzeko marko horretan kokatu behar dugu, besteak beste, merkaturatutako bost urterako tarifa-akordioa, inguruaren bilakaera ekonomikoari lotuta. Hitzarmen horretan adierazten den alderdi bien ezinbesteko konplizitateak behar besteko egonkortasuna ematen du Mercabilbaok bezeroen, handizkakoak nahiz txikizkakoak izan, finean, bertako merkatarien sustapenean jarduteko.

Merkataritza sektorea sustatzeak, eta haren barruan, nekazaritza eta industriarenak bereziki, gure herri eta hirien balioa berreskuratzen lagunduko digu; hori dela eta, elkarrekin lanean jarraituko dugu, etorkizunak ekar ditzakeen aukerak hautematen eta baliatzen, eta aldi berean, etor litezkeen mehatxuei aurre egingo diegu. Erein gabe ezinezkoa da uztarik jasotzea; beraz, lerro hauek baliatu nahi ditut merkataria, hornitzaileak, langileak, finean, Mercabilbaoko goiztiarrak lan ildo honi jarraitzen segitzen animatzeko, beti ere gure ibiliaren ezaugarri izan den zuhurtziarekin, garena izan gaitezen, sektoreko erreferente bat, alegia.

Iñaki Azkuna Urreta

Administrazio Kontseiluko presidentea

Bilboko Alkatea

Zuzendari nagusiaren aurkezpena

Mercabilbaoren kudeaketa-ereduak gure bezeroei balio erantsia eragingo dioten konponbideak eskaintzea du oinarri; horrela, beharrezkoa den oreka ahalbidetzen dugu gure eragileen enpresa-interesen eta alderdi publikoak gizarteari oro har eskaini behar dizkion gardentasun, osasungarritasun eta lehia bermeen artean. Gure ereduaren indarrarekin eta pertsonen inplikazio eta dedikazioarekin, kontrako abaguneei indar handiagoarekin aurre egin ahal izatea lortuko dugu.

2012. urteak ezegonkortasun ekonomikoa eta nazioarteko krisialdia izan ditu ezaugarri; bereziki modu negatiboan eragiten ari da familien kontsumoan, eta ondorioz, nekazaritza eta elikagaien sektorearen merkataritza-jardueran. Hala eta guztiz ere, Mercabilbaon merkaturatzen diren kopuruak ez dira nabarmen murriztu. Arrainen merkaturatze bolumena % 2,8 murriztu da; fruten eta barazkien merkaturatze bolumenari eutsi zaio. Bi sektore horietan produktuen prezioek bereari eutsi dioten arren, finantzaketarik ezak eragiten duen presioak eta berankortasun maila hain altuek eragiten duten ezjakintasunak merkataritza dinamika kolokan jartzen dute, eta sektorean negatiboki eragiten du.

Mercabilbao, S.A.n, hala ere, 2012. urtea urte positiboa izan dela esan genezake, emaitzek goranzko joera berretsi dutelako, eta aurreko ekitaldiaren aldean % 57ko hazkundea izan delako; baina, batez ere, merkaturatze jarduerari eutsi zaiolako. Horrela, eragile batzuek baxa eragin duten arren, beste batzuen alta edo zabalkundea gertatu da... eta horrek, bizirik dagoen merkaturatze gabilitzala erakusten digu. Merkataritzako salmenta postu guzti guztiak beteta daudela jakiteak, eta baliabideen sorkuntzan eutsi izanak ez gaitu urrundu behar zuhertasunetik, Mercabilbaoren kudeaketa-eredua arrakastatsua izan dadin, ezinbestekoa baita. Gure 3S kalitate-zigiluan adierazten ditugun ezaugarriak produktu zaporetsu, seguru eta osasungarriei dagozkie, eta finantza eta kudeaketaren alorrean, 3S izeneko ezaugarriek, sozietate onbideratu eta kaudimendun bihurtzen dute Mercabilbao.

Egitura onbideratua edukitzeak eta erabiltzaileekin 2012-2016 aldirako tarifa-akordioa sinatu izanak ematen duen egonkortasunarekin, eragileentzako balioa eragiteko ekintzekin jarraitu dugu, Mercabilbao markaren pean, hori baita zentzuzko kontsumoa sustatzeko kalitate bermea. Horren ildotik, aurreko urteetan bezala, 2012an ere aurreko ekimenekin jarraitu dugu: ikasleentzako tailerrak, gure bezero eta txikizkarien bitartez, prentsa eta irratian 3S-3G markaren hedapena, kirolaren sustapena, ekitaldi gastronomikoen babesa, eta fruta-otzaren hirugarren lehiaketa, besteak beste.

Instalazioen hobekuntzari eta kontserbazioari dagokienez, 2012an aurreko ekitaldian hasitako inbertsio elektrikoa jarri dugu abian. Era berean, estalki, lurzoru eta bideetan ohiko mantentze lanak egiteaz gain, aurten hainbat eragileren lan-baldintzak hobetzeko ekintzak egin ditugu: pabiloietan arrapala gehiago prestatu ditugu; bananen eremuan zama-lanetarako nasa handitu ditugu; komun publikoak egokitu ditugu; bulegoetarako sarbideetan oztopo arkitektonikoak desagerrarazi ditugu, eta hegaztiak uxatzeko gailu bat ipini dugu. Era berean, eta aurreko ekitaldietan zehaztutako bideari jarraikiz, pabiloien kanpoaldeko argiztapena hobetu dugu indukzio edo “led” elementuekin; horrek argi-intentsitatea handitu du, eta pertsonen eta ondasunen lana eta segurtasuna handitu egin dira. Aldi berean, etorkizunari begira, argindarraren fakturan aurrezpena ekarriko du, kontsumoa txikiagoa delako eta ekipoen iraupena handiagoa delako.

Instalazioen argiztapena hobetzeak segurtasunean ekarri duen hobekuntza aipatutakoan, 2012an, bideo-zaintza adimentsuko sistemaren instalaziorako inbertsioa amaitu dugula esan behar dugu. Sistema horrek elikagaien unitateko perimetroa kontrolatzeko telebista-kameren zirkuitu itxi bat kudeatzen du. Jarduerari uniformetasuna emateko, eta elementu berriak bikain kudeatzeko, instalazioetarako sarbideen kontrol eta zaintzarako kontratu berriak jarri genituen abian joan den martxoan. Era berean, segurtasunari eta kontrolari dagokion alorrean dauden beharrianen etengabeko azterketaren ondorioz, aurten, autobabeserako plana berrikusi eta erregistratu dugu, simulazio partzial bat egin dugu, gauez irteerak kontrolatzeko hesi automatikoa eta larrialdietako ateak zabaltzeko gailuak ipini ditugu.



Euskadiko Elikaduraren Clusterraren barruan, 2012an, komunikazioko lantaldean parte hartzen jarraitu dugu, bai eta elikagaien sektoreko enpresen ahalegina bideratzeko sareen proiektuan ere. Beharrezkoa den lankidetzaren bila jardun dugu, lehiakortasuna indartzeaz batera, enpresaren hazkundera zaindu ahal izateko. Horren ildotik, aurreko ekitaldian jada aurkeztu ziren berrikuntza estrategikorako hainbat proiektu, ontzi bakar eta berrerabilgarrian oinarrituta, eta 2012aren amaieran, jarduten hasteko onarpenen bat edo beste iristen hasi da, hala nola, Eusko Jaurlaritzak finantzaturako “Gaitek innovación Mercabox” proiektua. Abiapuntu ona da, eta horixe baliatu behar dugu elikagaien eta nekazaritzaren sektorean erreferente izaten jarraitzeko, bai eta arlo teknologikoan ere.

Gure buruari ezarritako kalitate-helburuak betetzen ari gara, eta horretarako, garrantzitsua da, besteak beste, laguntza informatikorako tresnak garatzea. 2012an, ISO 9001 eta ISO 14001 ziurtapenak berritu ditugu, eta aldi berean, EFQM ereduaren barruan, kudeaketaren bikaintasunaren bidean jarraitzen dugu. Urte amaieran, hobetu beharreko arloak identifikatzeko lehenengo autoebaluazioa egin genuen. Prozesu horren barruan, aurten ere, hainbat galdetegi helarazi dizkiegu bezeroei eta pertsonei, eta emaitza ona izan da, aurreko urteetakoaren antzekoa.


Gizarte-erantzukizunaren eremuan, eta zehazkiago, hondakinen garbiketa eta kudeaketari dagokionez, 2012an azkeneko urteetako ingurumenaren aldeko apustuari eutsi diogu, hau da, hondakinei ahalik eta balorizazio handiena ematea, horri esker, sektoreko erreferente gara eta. Ibilbide horri esker, 2012ko ekainean, Mercabilbao “Urrezko erratza” saria jaso zuen IFEMA-Madrilen urtero egiten den hirigintza eta hiri-garbitasunari buruzko azokan, eta hornikuntzarako merkatu nagusietan lehenak gara halako saria jasotzen. Hondakinen garbiketa eta kudeaketari buruzko kontratuan zehazten den lankidetzaren publiko/pribatua emaitza ona ematen ari denez, kontratuan aurreikusten diren epe-luzapenak negoziatzen hasi ginen 2012aren amaieran, eremu horretan ere etengabeko hobekuntzaren bideari jarraitzeko. Era berean, atal honetan aipatu beharra dugu argiztapenaren hobekuntza eta baliabideen erabilera eraginkorragoa.

Ez litzateke bidezkoa izango Mercabilbao osatzen duten pertsonen, merkatuan egiten diren jarduerak gau eta egun dinamizatzen dituzten horiek egiten duten lana aipatu gabe amaitzea. Gero eta ahalegin handiagoa eskaintzen dugu Mercabilbaoko eremuaren barruan lan egiten duten pertsonen lana seguruagoa izan dadin, eta horrekin batera, trebakuntzarako eta norbanako nahiz taldeko gaitasunak eguneratzeko planekin jarraitzen dugu. Era berean, ez litzateke bidezkoa izango Mercabilbaoko akziodunen ahalegina ahaztea ere; izan ere, Administrazio Kontseiluko karguak berritu behar zirela eta, haien % 57 murriztea erabaki dute, eta horrek dirua aurrezteaz gain, konpainiaren kudeaketa eraginkorragoa izan dadin ahalbidetzen du.

Inguruaren ezegonkortasunaren ikusita, 2013ra begira, zuhurtasuna izango da premisa nagusia, eta horrekin batera, ahalegina eta konpromisoa, estrategia egokiari eusteko gure jardueraren ardatz izango diren baloreak.

Aitor Argote Ibáñez
Zuzendari nagusia

“...Merkataritza sektorea sustatzeak, eta haren barruan, nekazaritza eta industriarenak bereziki, gure herri eta hirien balioa berreskuratzen lagunduko digu...” (Presidentea)





talentua

Mercabilbaoko akziodunen ahalegina; izan ere, Administrazio Kontseiluko karguak berritu behar zirela eta, haien % 57 murriztea erabaki dute, eta horrek dirua aurrezteaz gain, konpainiaren kudeaketa eraginkorragoa izan dadin ahalbidetzen du.

Mercabilbaoko akziodunen ahalegina; izan ere, Administrazio Kontseiluko karguak berritu behar zirela eta, haien % 57 murriztea erabaki dute, eta horrek dirua aurrezteaz gain, konpainiaren kudeaketa eraginkorragoa izan dadin ahalbidetzen du.

Presidentea	IÑAKI AZKUNA URRETA
1. presidenteordea	PABLO GONZÁLEZ GONZÁLEZ
2. presidenteordea	MARIANO GÓMEZ FERNÁNDEZ

Mahaikideak	OIHANE AGIRREGOITIA MARTÍNEZ MARIA VÁZQUEZ GONZÁLEZ MARTA AJURIA ARRIBAS EDUARDO MAIZ OLAZABALAGA EDUARDO ENCISO OCHOA PEDRO A. MONTELONGO MARTIN
-------------	--

Idazkaria	GONZALO RUIZ DE AIZPURU
-----------	-------------------------

Letradu aholkularia	GREGORIO ESTEBAN GUERECÁ
---------------------	--------------------------

Zuzendari nagusia	AITOR ARGOTE IBÁÑEZ
-------------------	---------------------

Mercabilbao osatzen duten pertsonak merkatuan egiten diren jarduerak dinamizatzen dituzte gau eta egun.

2012. ekitaldia ixtean, Mercabilbaoren plantilla fisikoak 19 lagun eta aurretik jubilatutako 3 lagun zituen.

Generoaren aniztasuna dela eta, 2012an plantillaren % 16,45 emakumeak dira, eta zuzendaritza-taldeko postu guztietatik % 25 emakumeak dira.

Plantillaren batez besteko adina 44,87 urtekoa da, eta enpresako antzinatasuna 17,12 urtekoa (aurretik jubilatutakoak kontuan hartu gabe).

Absentismoa, ALEengatiko bajak barne, % 4,07 murriztu da. ALEgatiko bajen kasuak alde batera utzita, absentismoa % 1ekoa izan da, 2011n baino % 0,12 gutxiago.


Laneko giroa

Bigarren urtez, Mercabilbaoko langileen asebetetzea neurtu da laneko giroari buruzko galdetegi baten bitartez. Galdetegi horren helburua langileen beharrian eta iguripenak identifikatzea eta haien asebetetzea eta konpromisoa baldintzatzen duten gakoak zein diren aztertzea da. Eraitza positiboa izan da, erantzun zabala izan du (% 89koa), eta lan-baldintzen eta laneko harremanaren balorazio oso ona izan da.


Trebakuntza

Langileak prestatzeko helburua lortu da; guztira, 242 ordu eman dira, eta plantillaren gehiengoak hartu du parte 13 ikastaroetan. Aurten, trebakuntzari dagokionez, lehentasuna eman zaio plantilla osorako arriskuen prebentzioari eta laneko segurtasunari, Autobabeserako Planaren eguneraketaren ondorioz. Era berean, zuzendaritza taldea EFQM ereduko hainbat arlotan trebatzea ere lehenetsi dugu (prozesuen araberako kudeaketa-eredua ezartzea, Kudeaketaren bikaintasunerako eta berrikuntzarako metodologiak, Barneko komunikazioa eta pertsonen kudeaketa). Beste alde batetik, finantza-gaurkotasunarekin eta krisi-garaian zerbitzuak kudeatzeko moduarekin zerikusia duten ikastaroak eta jite teknikoko beste ikastaro batzuk ere egin dira.

2012an, elikagaien manipulazioaren inguruko 9 ikastaro eman dira, guztira 186 prestakuntza-ordu, eta handizkako nahiz txikizkako enpresetako 62 langilek hartu dute parte.



Halaber, Mercabilbaok praktikaldi profesionala egiteko aukera ematen die Lanbide Heziketako ikasleei eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari ere eskaintzen dizkio diruz lagundutako ikastaroak, bereziki, langabezian daudenei zuzenduta.



Osasuna eta Laneko Segurtasuna

Ondoz ondoko hirugarren urtea da DYAk, Mercabilbaoren laguntzarekin, osasunari buruzko kanpaina egiten duena; oraingoan, “Fruten eta barazkien kontsumo-maiztasuna”ri buruzkoa izan da, eta Elikaguneko enpresa guztietako langileei zuzenduta egon da.

Mercabilbaok espazio kardiobabestu gisako ziurtapena lortu du Laneko medikuntza eta Segurtasunerako Espainiako Sozietateak emanda, desfibriladore bat eta gailua behar bezala erabiltzeko prestatuta dauden langileak dituelako. Ziurtapen horren oinarria bost atalen kontrola da: araudia; aseguruak eta desfibriladoreen salmentako araudiak betetzea eta banatzaileak; gailuen instalazioa, banaketa, kokapena eta seinaleztapena; desfibrilaziora jendea eramateko eta Autonomia Erkidegoetako araudiei buruzko gutxieneko prestakuntza; mantentze-lanak, iraungipenaren kontrol informatizatua, bai bateriei bai adabakiei dagokienez; eta bi urteroko berrikuntza, derrigorrezko trebakuntza-birziklapena, adabakien eta baterien berriztapena.

Prebentzioa

Autobabeserako Planaren eguneraketa eta egokitzapena erregistratu da Eusko Jaurlaritzan, eta bulego nagusietan simulazio partziala egin da. Aurrerago beste eremu batzuetara zabalduko da, merkatu osoa hartu arte. Horri buruzko trebakuntza eta sozializazio saioak egin dira. Horren ildotik plana Bizkaiko Foru Aldundiko Suhiltzaileei aurkeztu zaie sua itzaltzeko sisteman elkarrekin zehazteko, eta aldi berean, eta xede berarekin, Basauriko udaltzaingoa bertara dadin eskatu dugu.

Beste alde batetik, Bilboko Udalarekin amankomunatatutako zerbitzuen eskutik –Mercabilbao bertako kide izanik– enpresa-jarduerak koordinatzeko ekintzei ekin diegu, eta horrek egituratuko du Mercabilbaoko erabiltzaile guztiekin dokumentazioaren transmisioa.

Barne-komunikazioa

Mercabilbaoko langileen arteko barruko komunikazioari buruzko pertzepzioa zein den jakiteko, zeharkako azterketa egin genuen 2012ko irailean, xede horrekin prestatutako galdetegi berezi baten bidez.


Parte-hartzea, % 98,47koa izan da, gutxi gora-behera. Mercabilbaoko barne komunikazioaren egoerari buruzko balorazio orokorrak 5,94-ko batez bestekoa ematen du, 1etik 10erako eskalan.

Jakitun gara erakunde honetan lan egiten duten pertsonen arteko desberdintasunez. Iguripenak, beharrianak, konpromiso maila, etab. aldakorrak dira, eta ekintzak eraginkorragoak izan daitezten, gure Planaren xede diren hartzaileak identifikatuko ditugu: Zuzendaritza, Tarteko arduradunak eta Beste profesional batzuk.

Plan honen helburu nagusia barneko komunikaziorako kanalen erabilpena optimizatzea eta ildo estrategikoak eta jarduerak orientatzea da; ondorioz, eragozpenak desagerrarazteko, eta komunikazioa gure erakundearen funtzionamenduaren oinarri bihurtzeko.

Helburu espezifikoetarako, hobekuntzarako ekintzen kronograma landu dugu bi urterako (2013-2015).


Era berean, Mercabilbaoko kanpoko komunikazioa egituratuta dagoen arren, hobekuntzarako ekintzak egingo dira: hasteko, gure bezeroekiko eta kanpoko interes-taldeen komunikazioa landuko dugu, eta aldizkako bilerak sistematizatuko ditugu, komunikazioa eraginkorragoa eta kalitate handiagokoa izan dadin.



konpromisoa

Pertsonen inplikazio
eta dedikazioarekin,
kontrako abaguneei
indar handiagoarekin
aurre egin ahal izatea
lortuko dugu.

MERCABILBAOren interes-talde nagusiak eta horietako bakoitzarekiko konpromisoa.



...haien iguripenak bete eta gaindituko dituen zerbitzua eskainiz.

Bananak, frutak eta barazkiak

Zg.	Enpresa
221-323	ALEJANDRO CALVO S.L.
223	ALMACENES VILLATE S.L.
225-226-228	BARROSO ELVIRA S.L.
232-234-236-238-240-230-237-239	BILCO S.A.
315	BILCOFRUT S.L.
335-38-40	BILFRUTA S.L.
606	CARMELO TORNERO GUTIERREZ
203-205	CULTIVAR S.A.U.
604-605	EUROBANAN LOGISTICA NORTE S.L.
215-306	F.J. SANTAMARIA SANTOS Y HNOS.S.L
314	FRUMAX S.L.
212-218-220	FRUNORTE Y GARCIA S.L.
329	FRUTAS FERNANDEZ 1938 S.L.
332-334-336	FRUTAS FONSECA S.L.
313	FRUTAS GUTIERREZ S.L.
325-326-327-328-330	FRUTAS IRU S.A.
601-602-603-620	FRUTAS IRU S.A.
307	FRUTAS LA RONDEÑA S.L.
202-4-6-8-10	FRUTAS OLMOS S.L.
231-233-235	FRUTAS OLPA S.A.
331	FRUTAS SOLOGUREN S.A.
333	FRUTAS SOLVI S.L.
317-319-321	FRUTAS UDONDO S.L.
219-227-229	FRUTAS Y HORTALIZAS TITO S.L.
217-308-9-10-11	GRANA BILBAO S.A.
312	HNOS. PEREZ SEBASTIAN S.L.
207-209-211-213	PELTISA S.L.

Bananak, frutak eta barazkiak

Zg.	Enpresa
615-616-617	PLATANOS TITO S.L.
301-303-305	RESTITUTO MARTINEZ S.A.
337-339	RUIZ OSMA S.L.
201	SETAS Y CHAMPIÑONES RUIZ S.L.
302-304	TORRES HNOS. Y SUCRES. S.A.
316-318-214-216	VDA. Y HNOS. DE NICOLAS RODRIGUEZ S.A.

Arrainak

Zg.	Enpresa
101-103	ARRAINKO S.L.
124-126	ARRAIZA Y GUTIERREZ S.L.
106	CONIFRES S.L.
115	FERNANDO OLABARRIA S.A.
112-114	FREIRENORTH S.A.
116	FRIO BILBAO S.A.
131	ITSASLAMIA S.L.
110	JOSE CRESPO S.A.
118	LAS CAPOTINAS S.A.
120-122	MATEO MONTES S.L.
107-109	PEREZ VIÑAS S.A.
132	PESCADERIAS VASCAS S.A.
104	PESCADOS EUNATE S.L.
121-123	PESCADOS GRACIA S.L.
117-119	PESCADOS HNOS. SAINZ S.L.
125-127	PESCADOS IRURETA S.A.
102	PESCADOS LA BERMEANA S.A.
129	PESCADOS TXALUPA S.L.

Arrainak

Zg.	Enpresa
128	PESCANOVA S.A.
111	PILAR y DANIEL S.L.
113	RIF BILBAO S.L.
130	SUCRES. DE PESCADOS ALONSO S.L.
105	TRIANA S.A.
108	UGENA-SESEÑA S.L.

Balio- anitzekoen

Zg.	Enpresa
501	BILBOFRESH S.L.
522	CAMPOFRIO ALIMENTACIÓN S.A
513	CARNICAS PABELA S.L.
511-521-524	COMERCIAL DE HUEVOS MOSTEIRO S.L.
505-507	COOPERATIVA AVICOLA DE BURGOS
502-526	FRANCISCO HERNANDEZ S.L.
509	FRUTAS CENI S.L.
510-512	FRUTAS SOLER Y ALEX S.L.
504-506-508	HNOS, CARRASCO HORRILLO S.C.
515-517	LA GRANJA DE ALBERTO CARNICEROS
519	LAPERA FRUTAS Y HORTALIZAS S.L.
514	PESCADOS Y MARISCOS R.M. BARRIOCANAL S.L.
516	TRANSPORTES HNOS. BARBERO S.L.
518-520	TRANSPORTES IRAZABAL S.L.
503	TRIANA S.A.
523-525-527	VES S.L.(NORCASH)

Jarduera osagarriak

Zg.	Enpresa
Frutas y Hort.	ASOCIACIÓN DE COMPRADORES -DETALLISTAS DE MERCABILBAO
Rec. Alimentos	BANCO DE ALIMENTOS DE BIZKAIA
Cong.	CONIFRES S.L.
Asist. Sanitaria	DYA-MUTUA INTERCOMARCAL
Congel.	FRIO BILBAO S.A.

Jarduera osagarriak

Zg.	Enpresa
608-609	ARC EUROBANAN ZARAGOZA S.L.
Fca. Hielo	FRIGORÍFICOS GAGO S.A.
613-14-18-19	FRUTAS IRU S.A.
611-612-620	FRUTAS Y HORTALIZAS DEL NORTE S.L.
610	FRUTAS Y HORTALIZAS TITO S.L.
Rec. Envases	IBARRETA 2000 S.A.
Vivero	INCUMAR S.L.
Acces. Pescaderias	JAVIER GARCÍA SÁEZ
Palets	LUIS JOSÉ GUTIERREZ
Congela.	MATEO MONTES S.L.
pescados	PESCADOS IRURETA S.A.
Fru. Y Hort.	RESTITUTO MARTINEZ S.A.
Gasolinera	SOCOME (CEPSA)
Transpor.	TRANSPORTES OLANO Y MUÑOZ S.A.
Frut. Y Hort.	TXAIRO LOGISTICA S.L.
607	VDA. Y HNOS. DE NICOLAS RODRIGUEZ S.A.

Merkataldegiak

Zg.	Enpresa
12	ADMINISTRACIÓN DE LOTERIA
22	ASESORIA IBARRETA S.P.V S.L.
05	ASESORIA LARRAONDO Y ASOCIADOS S.L.
21	ASOCIACIÓN DE ASENTADORES DE PESCADO DE MERCABILBAO
03	ASOCIACIÓN DE ASENTADORES MAYORISTAS DE FRUTAS DE MERCABILBAO
04	B.O.C.D.O. TRAFIC S.L.
16	BANCO BILBAO BIZKAIA ARGENTARIA
06	BILBAO BIZKAIA KUTXA
23	CAFETERÍA ENARA
17	CAFETERIA LEGARRETA
01	CAFETERIA MERCABILBAO
07	FALINA S.L. (TRANSPORTES RAFA)
15	JUAN ANTONIO MOLINA
08	MERCAPESAJE (JOSE ANDRES MIGUELEZ)
20	PABLO SAGASTIZABAL (Allianz Seguros)
10	PANADERIA

...egindako kudeaketarekiko zer asebetetze-maila duten ebaluatuta.

Urtero, Mercabilbaok galdetegi bat helarazten die handizkakoei eta txikizkakoei. Horren bidez, erabiltzaileek Erakundearen kudeaketarekin duen asebetetze maila zein den eta emandako zerbitzuei zer garrantzi ematen dieten jakin nahi dugu. Galdetegi horretan, honako arlo hauek baloratzen dira:

- * Zerbitzuen kalitatea zenbatekoa den.
- * Bezeroenganako arretari buruzko balorazioa.
- * Birziklatze-politikarekiko konpromisoa.
- * Sanitate-kontrolari buruzko balorazioa.
- * Handizkariak eskaintzen dituzten produktuen kalitatea eta aukera.
- * Irispideen egokitasuna.


Emaitzen azalpena

Galdetegiari handizkako 34 enpresak eta saltegik erantzun diote, hau da, parte-hartzea % 33 izan da, gutxi gorabehera. Parte-hartze indizea, enpresa guztiei dagokienez, honako hau izan da sektoreka:

Merkatu balioanitzak: 13%
Arrainen merkatua: 35%
Fruten, barazkien eta platanoen merkatua: 44%
Merkataritza Zentroa eta Jarduera Osagarriak: 38%

Txikizkarien inkestarako, egunero instalazioetara doazen artean 50 enpresa aukeratu dira ausaz.

Inkestaren emaitzak honako hauek izan dira:



Zerbituzen garrantzia (1etik 5era arteko balorazioa)

Handizkakoek ordena honetan zehaztu dute garrantzia: segurtasuna, mantentze-lanak, garbitasuna eta mugikortasuna. Txikizkariak, aldiz, garbitasuna, hondakinen kudeaketa eta mugikortasuna jo dituzte garrantzizkoentzat.

Tarteko garrantzia ematen diote handizkakoek langileei eta komunikazioari, eta txikizkariak aldiz, garrantzi txikiagoa ematen diete komunikazioari eta segurtasunari.

Zerbitzuak

Mugikortasuna:

Handizkarien eta merkataritza lokalen erabiltzaileen % 88 pozik dago eremuan sartzeko itxaron behar duten denborarekin eta % 83 pozik dago merkatutik irteteko behar duten denborarekin.

Txikizkarien % 50ek merkatura sartzeko behar duten denbora onargarria dela uste du, eta irteteko denborari dagokionez, % 94 ados dago.

Txikizkariak aparkalekuei buruz dute asebetetzea % 5 igo da.

Handikariak zein txikizkariak korridoreen okupazioa hobetu beharra azpimarratzen dute, batez ere salmenta-orduetan.

Garbitasuna

Handizkarien artean, % 0,15 igo da garbitasunaren nota, eta txikizkarien artean, % 0,22 jaitsi. Alde biek azpimarratu dute komunak garbitasuna hobetu behar dela.

Segurtasuna

Handizkarien eta merkataritza-lokalen % 74 eta txikizkarien % 78 ados daude segurtasunarekin.

Handizkarien % 73 eta txikizkarien % 14 bat datoz bide-segurtasunarena eta ondasunen segurtasunaren hobekuntza eskatzean.

Mantentze-lanak

Handizkarien % 75 eta txikizkarien % 76 pozik daude bide eta espaloietako mantentze-lanekin. Nasen eta azpi-nasen kasuan, handizkarien asebetetzea % 73ra igo da, eta txikizkariena % 78ra jaitsi da.

Argiteria publikoari dagokionez, handizkarien % 59 eta txikizkarien % 84 pozik daude.

Hondakinen kudeaketa

Hondakinen kudeaketaren puntuazioa igo egin da handizkarien artean; hala ere, inkesta egin duten handizkarien % 18k adierazi dute birziklatzeari buruzko formazioa behar dela.

Inkesta egin duten txikizkarien % 82 pozik daude hondakinen kudeaketarekin.

Komunikazioa

Inkesta erantzun duten handizkarien % 85 eta txikizkarien % 72 pozik daude komunikazioarekin.

Proposamen gisa, bi sektoreek Informazio Buletina hobetzeko eskatu dute.

Asebetetze maila orokorra

Handizkarien % 83 eta txikizkarien % 64 pozik dago, oro har, Mercabilbaok emandako zerbitzuekin.


Bezeraentzako arreta:


Aurten ere, notarik altuena Mercabilbaoko langileek lortu dute. Handizkarien kasuan, % 97 pozik edo oso pozik dago, eta txikizkarien % 92 pozik dago Mercabilbaoko langileengandik jasotako arretarekin.

Produktuen kalitatea, aniztasuna eta prezioa

Txikizkariari egindako galdera horiek askotariko erantzunak izan dituzte:

- * % 86k uste du produktuen aniztasuna oso ona dela (2011n % 80 izan zen).
- * % 60k uste du kalitatea altua dela (aurreko inkestan % 64 izan zen).
- * % 42k uste du sanitate-kontrola ona dela, eta % 44k egokia dela uste du.
- * Prezioei dagokienez, % 72k uste du garestiak direla, eta % 28k uste du normalak direla.





...Produktua hobetzen, bezeroen eskakizunen arabera.

1. Nasetako argiztapenaren erabateko birmoldaketa

Fruta eta barazkien, arrainen, baserritarren (bertako produktuak), izoztuen eta hozkailu orokorreko salmentarako nasetan argiztapena berritu da erabat, eta horren kostua laurogeita hamar mila eurokoa izan da gutxi gora-behera.



Mercabilbaoren pabiloietako zamalanen gunetean, hasieran, fluoreszenteetan oinarritutako argiztapena zegoen; horiek energia asko kontsumitzen zuten arren, horrek ez zuen ezinbestean argiztapen ona esan nahi, aitzitik, oso eraginkortasun energetiko txikia zuten, eta argi-kutsadura handia eragiten zuten.

Lehengo fluoreszenteak indukzio-teknologiako kanpaiekin ordeztu ditugu bi pabiloietan, eta eraginkortasun handiko LEDekin gainerakoetan. Fruta eta Barazkien pabiloietako ekipoak indar doigarriak dira, eta “Nodo” izeneko gailu elektroniko batzuek kontrolatzen dituzte; horiek, irспен luzeko presentzia-detektatzaile berezi batzuekin lotuta daude, eta horrela presentziarik ez dagoen lekuetan argiaren indarra jaitsi egiten da, eta presentzia hautematean, aldiz, igo.

Beharrezkoa den aurrerapenaz jarduteko eta ahalik eta gehien eta iraunkorki argiztatuta dauden espazioen zentzazioa sortzeko, argiek elkarrekin komunikatzeko gaitasuna dute, eta hori guztia dagoen kableekin egiten da, beste kablaren beharrik gabe.



Sistemaren efizientzia maximoa

Ezarritako teknologiarekin, kable elektrikoak komunikazio digitalerako bidea dira, halako eraz non argi puntuak bestelako zerbitzu batzuetarako ere erabil daitezkeen: megafonia, bideo-zaintza, wifia, informazio-pantailak, eta hori guztia beste inolako kablerik gabe, eta horrela, espazio adimentsua deiturikoa sortzen da.

Instalazioen mantentze-lanak

Komunikazio digital hori guztia prozesagailu batetik kontrolatzen da, eta horri esker, urrundik kudea ditzakegu argiztapena eta aipatutako gainerako zerbitzuak, eta horrela, argi-puntu bakoitza piztu, itzali eta erregulatu egin dezakegu. Halaber, orduen araberako zer-nolako presentzia egon den, eta matxurarik badagoen ere; horrela, mantentze-lan egokia egin daiteke. Urruneko kudeaketa hori edozein ordenagailutatik egin daiteke, web aplikazio baten bidez.

Bizitza erabilgarria

Mantentze-lanen kostuak ere nabarmen murriztuko direla aurreikusten dugu, ezarri diren ekipoei bizitza erabilgarri askoz luzeagoa dutelako, eta mantentze-lanak kudeatzeko tresna informatikoa daukagulako. Egindako inbertsio guztia berehala kitatuko dugu, lortutako aurrezpenari esker.

Mercabilbaok argiztapen-sistema adimentsua ipini du fruta pabiloietan; nazioartean aitzindaria da, eta xede nagusiak honako hauek dira: argiztapenaren kalitatea hobetzea, energia-kontsumoa murriztea, eta espazio adimentsua sortzea; horretarako, kontrolean, detekzioan eta komunikazioan azken belaunaldiko teknologia erabiliz.

Aurrezpen energetikoa

Ezarritako teknologiarik esker % 80tik gorako energia-aurrezpena lortuko dela aurreikusi da, eta argiaren kalitatea nabarmen hobetzeaz gain, argi-kutsadura murrizten da, eta gainera, beste aplikazio batzuetarako ere komunikazio digitalerako bidea prest geratzen da.

Nazioartean aitzindaria da teknologia hau, eta euskal enpresa batek garatu du, berrikuntzaren eta enpresa proiektu berrien sustapenaren eremuko enpresen batasunetik sortutako enpresa batek.

2. Instalazioen mantentze-lanak

Argiztapenaren hobekuntzaz gain, jarraian, 2012an zehar egindako mantentze-lanen zerrenda jaso dugu:

Fruten merkatua

- Arrainaren eta fruten pabiloietako larrialdietako ateen blokeo segurua, eta barruko lurraren kontserbazio-lanak.
- Barneko korridoreak pintatu dira eta matxuren berri emateko gailua ipini da fruten pabiloietako eguneroko erreserbako kameretan.



- Pabiloietako nasetako argiztapena hobetu da, eta indukziokoekin eta LEDekin ordeztu dira. Horri esker, argi indar handiagoa dago, kontsumoa nabarmen murriztu da, eta gainera, ekipoeak iraupen luzeagoa dute. Horrez gain, baliabideak eraginkortasun handiagoaz erabili ahal izateko, argiztapena kudeatzen hasi gara. Energia-eraginkortasuna -> 10 mila euroko laguntza EEEn eskutik.
- Arrapala gehiago ipini ditugu, eta bananen pabiloiko zamaketa-nasako azalera handitu dugu.

Arrainen merkatua

- Erreten eta zorrotenak konpondu eta zaindu ditugu izoztuen pabiloian eta kanpoko parkingean.
- Izoztuen pabiloiko nasako egitura metalikoa igo egin dugu.
- Hegaztiak uxatzeko gailuak ipini ditugu, kaioen kopurua gutxitzeko.



Administrazio-erakina

- Administrazio-erakineko oztopo arkitektonikoak desagerrarazi ditugu.

Fruten hozkailua nagusia

- Biltegiratzeko espazioa handitu dugu, hozkailu nagusian makinen gela kendu dugulako.
- Hozkailu nagusian arrapala berria jarri dugu, kanpoko aparkalekura iristeko.


Obra orokorrak

- Tentsio altu eta baxuko instalazio elektrikoan zeuden akatsak konpondu dituzte, eragileen koadro elektrikoetan derrigor egin beharreko aldaketak barne.
- Geroago Mercabilbao OCAre (Kontrolerako Erakunde Baimendua) ziurtapenak eman zizkien eragileei, eta berrespenen zain gaude Industrian aurkeztu eta, horrela, tentsio baxuko instalazio guztia legeztatzeke.
- Irteera nagusiko erraileko hesia ordeztu egin dugu, gauez segurtasuna hobeto kontrolatu ahal izateko.
- Bide-seinaleztapenerako elementuak erosi ditugu, eta autopistaren ondoko eta gasolindegiaaren aurreko perimetroan segurtasun-hesiak ipini ditugu.
- Bideo-zaintza adimentsuko sistema berria, perimetroko detekzioarekin, eta kontrol-zentroa abian jarri dugu.


Sarbideetako kontrola eta segurtasuneko hobekuntzak

Urtean 686.529 ibilgailu sartu dira, merkatuko langileenak barne, hau da, 2011n baino % 1,56 gutxiago. Jaitsiera erregistraturiko hiru ibilgailu motei dagokie. Sarrera handieneko hilabeteak martxoa, maiatza eta ekaina izan dira.

Ibilgailuak (Hileroko sarrerak)



Ibilgailuen Sarrera Urteko Eboluzioa



Ondoren, giza baliabideetan nahiz segurtasun-eremuko materialean 2012an egin diren jarduera nagusiak jaso ditugu.

1. Atezaintza-zerbitzua eta segurtasunaren zaintza

Atezaintza-zerbitzuko enpresa berrien kontratu berria hasi aurretik, bai eta Segurtasunerako Zaintza Zerbitzuen ere, zerbitzu berria diseinatu da beharrezko bitartekoez hornitzeko, gure Elikagunearen dinamikara egokituta, kalitatea nagusi den zerbitzu bat lortzea ahalbidetuko duten giza baliabideak eta talde teknikoak optimizatuta. Horren ildotik, lanerako plan berriak diseinatu ziren, eta merkatu osoan segurtasun biretan fitxatzeko puntu gehigarriak ipini ziren.

Zerbitzuaren malgutasuna balio garrantzitsua izan da, giza baliabideak eta materialak egungo eta etorkizuneko exigentzietara egokitzearekin batera, eta etengabe oreka bilatu da eguneroko beharrak betetzeko, emaitzarik hoberenak lortzera begira.

Jarrera eta portaera zibikoak sustatzera bideratu da kontratu berria, Elikagune seguruagoa sustatzea bide, honako jarraibide hauek beteta:

- Atezaintza-zerbitzua: batez ere, harrera, bisitarien egiaztapena eta haien orientazioa, bai eta sarbideen kontrola, dokumentuak edo txartel pribatuak ere.
- Segurtasunerako zaintza Zerbitzua legez gaitutako giza elementua eskaintzea, pertsonen, enpresa-jarduerari, ondasunei eta balio material zein ukiezinei zuzenean nahiz zeharka eragiten dieten Mercabilbaoren instalazioetan gerta daitezkeen arriskuak hautemateko, kontrolatzeko eta murrizteko.

Aurreko kontratuaren aldean bi hedapen daude. Asteburuetakoa kideak bikoiztu egin dira (2011ko otsailetik jada egiten zen), eta segurtasuneko zaintzaile bat gehitu da urteko 365 gauetan, "segurtasun kontrolerako zentroa"z arduratuko dena.

Kontratu berria indarrean sartu da 2012ko martxoaren 1ean, eta hiru urteko iraupena du; aurrekoaren aldean hobekuntza ugari ditu, materialak zein ekonomikoak.



2. Segurtasunerako elementu teknologikoen inbertsioa

Giza baliabideen osagarri gisa, eskaini diguten konponbide teknologikorik onena instalatu da segurtasun perimetroaren detekzio eta kontrolerako, eta 146 mila euroko inbertsioa egin dugu.

Perimetroko segurtasun kameren kopurua handitu da, eta horrela, merkatura egin litezkeen intrusio guztiak kontrolpean geratzen dira. Ezarritako konponbideak perimetroko detekziorako eta intrusioen kontrako sistema elektronikoak ditu osagarri.

Perimetroa babesteko sistema bat dugu, hesietan sentsoreak dituen, eta bideoko elementuekin integratuta; horrela, prestazio handiko eta konponbide integrala eta gertakarien aurrean erreakzionatzeko gaitasuna lortzen dira. Intrusioa hautatzeaz gain, haren kokapenari eta ibilbideari buruzko informazioa ere edukiko dugu.

Horrela, perimetroko konponbideak intrusoa hautemandakoan, matrize birtualean makroa exekutatu da, eta une horretatik aurrera, haren mugimendu guztiak erregistraturik geratuko dira.



Bideo-zaintzako sisteman Integrazio Plataforma bat instalatu dugu segurtasuneko instalazio guztien kudeaketa integralerako. Puntako teknologia da, erraza, inguru grafiko beretik segurtasun sistema osatzen duten konponbide guztiak erabiltzea ahalbidetzen duena. Gure instalazioa osatzen duten sistema guztiak komunikatzen ditu, eta haren hainbat puntutan ekintza desberdinak abiarazten ditu alarmak edo gertaerak jazotzen direnean, eta horrela, konponbide guztiek osotasun bat eratzen dute.

Sistema adimentsua da, modu automatiko eta autonomoan jarduten duena, eta sistemaren kudeatzaileari lana errazten diona, honakoan, kontrol-gunean dauden segurtasun-zaindariena. Saguaren klik batekin instalazioaren planora eta bertako ikonografiaren kudeaketara iristen gara (bideo-elementuak).

Sistema malgua da, gure beharrianetara egokitzen da funtzioak gehitzeko aukera ematen duen modulu-plataforma batekin. Makro izeneko funtzio konplexuak sortzea ahalbidetzen du, eta horiek segurtasunaren kudeaketa eta instalazioaren ikuspena errazten dute. Makro horiek modu automatikoan abiarazten dira alarma bat edo gertaera bat jazotzen denean, edo bestela, eskuz eragin dakieke botoi bat sakatu hutsarekin.

Esaterako, makro grafikoa gaitzean, segurtasun instalazioko planoak guneka banatuta agertuko dira. Koloreen arabera banaketa horri esker, instalazioko gune bakoitzari dagozkion segurtasun-elementuak identifika daitezke modu azkar eta intuitiboan. -Gure instalazioko segurtasun elementu bakoitzak hura identifikatzen duen ikono grafiko bat darama.

Puntako soluzio horri esker murriztu egiten dira alarma faltsuak, eta gertaera baten aurrean, erantzuna ahalik eta azkarrena izatea eta ahalik eta informazio gehien ematea lortzen dugu.

Planoan, ikonografiaren kolore-aldaketa batekin, gure instalazioaren egoeraren berri izan dezakegu begiratu hutsarekin.

Perimetroaren detekziorako sistema

523 sentso piezoelektriko

5 sentso bolumetrikoko

1 hesi infragorria

CCTV sistema

6 Domo kamera, intrusoari automatikoki jarraitzeko aukera ematen dutenak

7 Kamera finko

Berrikuntza eta merkatu zabalkundea

Mercabilbaok Euskadiko Elikaduraren Klusterrean parte hartu izanak 2013an zehar egingo den proiektu berri batean sartzeko aukera eman digu.

Redes proiektua abenduan aurkeztu zen. Proiektu horren xede nagusia Klusterreko enpresen arteko harremana estutzea eta konponbideak partekatzeko erronka komunak identifikatzea da.

Proiektu pilotutik ateratako ekarpen eta elkarrizketetatik, bost interes-gune ondorioztatu ditugu: Merkataritza eta marketina, Ekoizpena, Administrazioa eta Finantzak, I+G eta Kalitatea, Erosketak eta Logistika.

Hautemandako arloak kontuan hartuta, proiektuaren oinarria kezka komunak lantzea da, eremu bakoitzaren zuzendarien arteko loturak sortuz.

2012ko abenduan Eusko Jaurlaritzaren Berrikuntza eta Teknologia Sailburuordetzak Mercabox proiekturako laguntza eskaera onartu zuen. Proiektua ontzi bakar berrerabilgarrian irati-frekuentziako elementuak sartzeari buruzkoa da, “Gaitek 2012” programaren barruan dago, eta laguntza horri esker, elikagaien eta nekazaritza sektorean proiektu berritzaile hau gauzatzeko jarduerari ekin ahal izango zaie.

Elikagunerako bisitak

2012an zehar hainbat bisitaldi izan ditugu, erakundeetatik, merkataritzaren alorretik eta prestakuntza alorrekoak. Abenduan, E.N. Mercasako Merkataritza Egituren Zuzendari berria izan genuen bertan; berarekin batera, Elikadura Unitateen Koordinazio burua eta Mercabilbaoko Unitateen Koordinazio burua ere izan ziren.

Merkataritza jiteko zenbait bisita izan ziren, hala nola Txilek Euskal Herrian duen Kontsularena, Prochilaren zuzendariarekin batera etorri zena; etxez etxeko errestaurazio alorreko Etxef enpresako gerentea, eta Frites Chorpel S.L enpresako gerentea.

Prestakuntza alorrarekin lotuta, Azti Tecnalia izan genuen, hondakinei buruzko azterketa bat egiteko; EHUko Elikagaien Teknologia Masterreko ikasleak, eta Sain Paul les Daxeko (Frantzia) Haroun Tazieff Institutuko ikasleak.

Beste alde batetik, instalazioetako grabazioak egin dira ETB eta RNEko informazio-saioetarako, eta beste batzuk ere, publizitaterako.



...lehiakideengandik bereiziko gaituen marka balioa sustatzeko

“Mercabilbao” marka sendotzeko lanean jarraitzen dugu, kontsumitzaileentzako produktu gozo, seguru eta osasungarrien berme gisa. Markaren balio handiagoak kontsumitzailearen leialtasuna bultzatzen du, eta hori izan da 2012an fruta eta arrainei buruzko tailer sentensorialetan egin diren ekintzen xedea. Tailer horietan, etorkizuneko kontsumitzaileek hainbat arrain, fruta eta barazki probatzeko aukera izaten dute.

1989. urteaz geroztik, Mercabilbaok 25.649 ikasle eta 1.585 heldu hartu ditu bisitan; horietatik 4.446 lagunek 2008an abian jarri ziren Tailer sentensorialetan hartu izan dute parte; eta horri esker, Mercabilbaok irakaskuntzaren eremuan zer nolako interesa pizten duen, ikasleek elikadura den gai garrantzitsu honi buruz zer ikasi duten (inkestak) eta Bizkaiko familiengan zer nolako oihartzuna daukan jakin dezakegu.



Markaren balioa handitzera bideratutako beste jarduera batzuk honako hauek izan dira: lehiaketa gastronomikoen babesa, eta fruta-otzaren lehiaketaren hirugarren edizioa, azken hori Bilboko Zazpi Kaleetan egin zen, eta bertan, kontsumitzaileek hainbat fruta dastatzeko aukera izan zuten. Horrez gain, hainbat fruta ale eta sustapeneko gauzak eraman ahal izan zituzten etxera, Mercabilbaoko enpresek eta haien hornitzaileek emanda.

Era berean, prentsan publie-reportaje batzuk egin ditugu Mercabilbaon erosten duten txikizkarien jardueri buruz, eta tokiko irratietan sustapeneko betegarriak egin ditugu. Horrez gain, Onda Vascako "El primero" saioaren zuzeneko emanaldia egin izan dugu merkatuko instalazioetatik, eta setean bertan Osasun eta Kontsumo zinegotzia, Zuzendari Nagusia, osasun arloko ikuskatzaile bat, handizkariak, txikizkariak, eta mediku nutrizionista bat izan dira.



Kirolaren alorrean, Deustuko Arraun Klubaren babeserako akordioari eutsi diogu, eta gainera, hainbat kirol ekitalditan publizitate ekintzak egin ditugu.

Apirilean, Kominikazio Gabinetek baten zerbitzua kontratatu genuen 2012rako, Mercabilbaoren irudi positiboa erabiltzaileei eta kontsumitzaileei helarazteko. Eraitza hainbat mediotako 112 agerraldi izan dira, iaz baino % 27 gehiago.

Instalazioen barruko publizitate jarduera, eta salmenta pabiloiko produktuen sustapenak, merkatua dinamizatzeko elementuak dira, eta euren produktuak erakusteko iragarkiak egiten dituzten enpresengan Mercabilbaok eragiten dien konfiantzaren isla dira. 2012an, publizitate-ekintzei eutsi egin zaie, baina eraitza ez da izan espero zena, diru-sarrerak % 24 murriztu baitira.



...kalitatearen eta ingurune-kudeaketaren.

Mercabilbaoko kalitate-politika gure misio, ikuspen eta baloreetan jasota dago, beti bezeroaren asebetetzea xede, gure zerbitzuen bikaintasuna ISO 9001:2008 arauaren, EFQM ereduaren betekizunetan, eta kalitate-helburuetan oinarrituta dago, erakundeko prozesu guztien etengabeko hobekuntzaren bidez.

2012an, kalitateko ISO-9001 eta ingurumeneko ISO 14001 ziurtapenak berritu ditugu, eta EFQM ereduaren ezarpenean aurrera egin dugu, prozesu guztien onarpena eta garapenarekin eta REDER matrizearekin egindako lehenengo autoebaluazioa eginda.

Ingurumenaren kudeaketa

Ingurumenaren arduraren eremuan, eta zehazkiago hondakinen garbiketa eta kudeaketari dagokionez, 2012an:

- Aurreko urteetako ingurumenaren aldeko apustuari jarraitu diogu; hau da, hondakinen balorizazio gorenari eutsi diogu, eta horri esker, erreferentea gara sektorean
- 2012an Mercabilbaok “Urrezko Erratza” saria jaso zuen IFEMA-Madrilen urteko egiten den hirigintza eta hiri-garbitasunari buruzko azokan, eta hornikuntzarako merkatu nagusietan lehenak gara halako saria jasotzen.
- 2012aren amaieran hondakinen garbiketa eta kudeaketaren kontratuan aurreikusitako luzapenak negoziatzen hasi ginen, etengabeko hobekuntzaren bideari jarraitzeko ahaleginean.




Era berean, kontsumo elektrikoa murrizteko eta argiztapena hobetzeko erronkari eusten diogu; beraz, nasetako kanpoko argiztapen-ekipo guztiak ordeztu dira indukzioko eta LED ekipoekin. Horiei esker, argiaren intentsitatea handitzeaz gain, kontsumoa murrizten da eta ekipoak iraunkorragoak dira, hartara, mantentze-lanak eta kendu beharreko ekipoak murriztu egiten dira. Berrikuntzetako bat da argiztapena kudeatzeko sistemen gehikuntza, ekipoen eraginkortasuna handitzen duena.



Erreferentziako adierazle batzuk:

2012ko ingurumeneko magnitude nagusiak honako hauek dira:

- Urtean zehar, uraren kontsumo osoa, merkatua garbitzeko erabiltzen dena barne, 26.169 m³-koa izan da; iazko 30.885 m³-en aldean, beraz, kontsumoa % 15,27 murriztu da. Murrizketa hori kontsumoaren eta ur-ihesen kontrol handiagoari esker etorri da. Handizkako enpresen ur-kontsumoa % 2,68 handitu da iazko aldea; hau da, merkatuko kontsumo osoaren % 53,83, alegia.



- Kontsumo elektrikoaren urteko guztizkoa jaitsi egin da apur bat, 8.629 Kw-ra iritsi da, 2011ko 8.989 mila Kw-ren aldean, hau da, % 4,01 gutxiago.


- Hiri-hondakinen pareko hondakinen bilketa % 16,52 jaitsi da. 1.859 Tm bildu dira (aurreko urtean baino 368 Tm gutxiago), eta horrek, sarrerako salgaien % 0,76 adierazten du.

- Hondakin organikoen bilketa 346 Tm-koa izan da; 2011n, aldiz, 491,5 Tm izan ziren; hau da, aurreko urtean, % 29,6 gutxiago, eta horren arrazoia, batez ere, fruten eta barazkien organikoaren murrizketa izan da. Arrazoi nagusiak honako hauek izan dira: konfiskatutako generoa % 20 gutxiago izatea eta konfiskatutako fruta eta barazkien eskaera handitu izanda dira; azkena, baserritarrek egindako eskaera da, animaliei jaten emateko.


- Jasotako hondakin guztietatik birziklatutakoa guztira % 34,26 izan da; hau da, sartu diren salgaien % 0,39.

- Garbiketa-kostuei dagokienez, % 67 langileei dagokie beren beregi, garbiketa eta desinfekziorako bitartekoak eta zereginak; % 33 aldiz, hondakinen banakako bilketari (langileak barne), haien garraioari eta isurketa-kanonei dagokie. Kudeaketa guztia Cespa (Ferrovia) enpresarekin azpikontratatuta dago.

Mercabilbaoen Kontsumo elektrikoa (mil.Kwh)



Mercabilbaoko Zabor Produkzioa (Tm/urte)



Hornitzaileen kudeaketari dagokionez, praktikak erakutsi du harremanak sendotu egin behar direla, benetako aliantza estrategikoetan oinarrituta. Aliantza horiek lankidetzaz hitzarmenetan gauzatu behar dira, Hornitzailea-Bezera sistemako prozesuak barneratzeko.

Bezeraoren eta hornitzailearen harreman estuaren funtsa erakundearen helburuak lortzeko hornitzaileek duten garrantzia onartzea da.



Hautaketa egokia ebaluazio-prozesuen emaitzetan dago.

Hornitzaileen ebaluazioa

Erosketa politikaren parte gisa, Mercabilbaok aldizkako ebaluazioa egiten die hornitzaileei erakundeak behar duen gaitasuna ote duten bermatzeko, honako arlo hauetan: ekoizpena, teknika, finantzak, kalitatea eta merkataritza.

Ebaluatutako hornitzaileetako zenbakia	Onartutako hornitzaileetako zenbakia
64	64

Zentzumen tailerrak

Gizartearekiko gure konpromisoaren barruan, hainbat jardueretara lotuta gaude; hala nola, haurren eta gazteen elikadura, eta horretarako Tailer sentsozialak egiten ditugu, Slow-Food Convivium Bilbao-Bizkaia Elkartearen eskutik.

Tailer sentsoarialetan parte hartzen duten eskoletako bisiten programaren barruan, 2011-2012 ikasturtean 48 bisita izan ditugu. Hainbat ikastetxetatik etorri dira, guztira 855 ikasle eta 86 irakasle.

Bisitaren ondoren, ikasleek eta irakasleek bisitari buruz duten iritzia jasotzen da.

2011-2012 ikasturtean, irakasleek egindako batez besteko balorazioa 9koa izan da, gehienez 10 izanik.

Ikasleen balorazioa ere altua da, bertaratu direnetatik % 73k bikain baloratu dute. Ondorioz, jarduera horrekin definitu genituen helburuak ederki bete direla esan dezakegu:

1. Mercabilbaoren instalazioetara egindako bisitaren eta parte-hartzeko jolasen bidez, arrainak, frutak eta barazkiak ezagutzea. Mercabilbao y juegos de participación divertidos.
2. Slow Food mugimendua modu atsegin eta orijinalean ezagutaraztea, ikasleei zer proposatzen duen eta gure bizitzeko eta elikatzeko modua nola hobetzen duen irakatsiz.
3. Gure elikadura-ondarearen garrantziaz jabetzea, arrainen, fruten eta barazkien kontsumoa azpimarratuz.
4. Gustua produktu freskoen, fruta zukuen eta arrain-mokaduen kontsumoaren bidez hezte, Mercabilbaoko Slow Food esperientziaren atal garrantzitsu gisa.



Bizkaiko elikagaien bankua

2012an zehar, Bizkaiko Elikagaien Bankuak 5.354 Tm jaki banatu ditu; horietatik 653 Mercabilbaokoak ziren, eta 28 eragileek emandakoak.

Irabazi-asmorik gabeko erakunde horrek lokal bat du Mercabilbaon, beharrezko baliabideak ez dituzten pertsonei edo erakundeei jangaiak banatzeko. Gainera, fruta-otzaren lehiaketako edizio bakoitzean otzaren zozketa egiten da, eta hortik biltzen den dirua erakunde horri ematen zaio fruta soberakinekin batera.



Kirolaren alde

Mercabilbaok Deustu Arraun Taldearen kirol jarduerak laguntzen jarraitzen du. Talde horrek tokiko eta nazio mailako hainbat lehiaketetan parte hartu du.

Haurren batela Espainiako Txapelketarako sailkatu da, Euskadin bi hoberenen artean geratu baita. Txapelketa horretan Estatuko 10 ontzi onenek hartzen dute parte. Haurren kategoriako batelek denboraldi itzela egin dute, hirugarrenez jada. Bizkaian brontzea lortu dute; Euskadiko txapeldun izan dira eta Espainian ere brontzea, eta beheko kategorietarako erreferentzia dira Euskadin.

Denboraldia amaituta, berriro ere lanari ekin behar zaio beheko kategorietan eta Elkartera hurbiltzen diren fitxaketa berriekin. Beste alde batetik, Mercabilbaok 2012ko Korrikan parte hartu du euskararen alde, eta oinarrizko kiroleko beste ekitaldi batzuetan ere bai.

Errepidean laguntza emateko DYA elkartea

Elikagaien zentro honetan dagoen DYAko mediku-zerbitzuaren iritziz beharrezkoa da langileei galdetegi bat egitea fruta eta barazkiak zer maiztasunarekin jaten dituzten jakiteko, dieta mediterraneoan funtsezkoak baitira. Ekainean, galdetegia egiteko aurreikusitako aldian, 117 lagunek erantzun zuten, horietatik 40 emakumek eta 77 gizonek.

Galdetegiari erantzun dioten pertsonak sexuaren eta 20 eta 65 urte arteko adin-tarteen arabera sailkatu dira, eta talderik jendetsuena 35 eta 50 urte artekoena da.



Fruten kontsumoa

Galdetegian parte hartu duten pertsona guztiak kontuan hartuta, gehien kontsumitzen den fruta laranja izan da, % 38; banana, % 37; mandarinak % 21, eta bestelako frutak % 4. Kontsumoari buruzko datu horiek ez datoz guztiz bat lehentasunekin: Emakumeek, adina alde batera utzita, marrubiak, laranjak eta gereziak nahiago dituzte, ordena horretan. Gizonen kasuan aldiz, lehentasunak adinaren araberrakoak dira. Horrela, 20-35 urteko tartan, banana, sagarra eta marrubiak dituzte nahiago. 36-50 urte artean, banana, sagarra eta laranja, eta 51-65 urteko tartean, meloia, sagarra eta gereziak.

Emakumeen kasuan, laranja da gehien kontsumitzen den fruta, adina zeinahi dela. Gizonen artean, 20-50 urteko tartean, gehien jaten dutena banana da, eta 51-65 urteko tartean, berdin kontsumitzen dituzte laranjak eta sagarrak.

konpromisoa

Kontsumo maiztasunari dagokionez, hona hemen datuak:

- Egunean behin baino gehiagotan: % 26,44
- Egunean behin: % 32,18
- Egunean behin baino gutxiagotan: % 39,08
- Inoiz ez: % 2,30

Egiaztatu ahal izan da adin tarte guztietan eta bi sexuei dagokienez, frutaren kontsumoa bazkariarekin edo afariarekin lotzen da; hala ere, fruta eta barazkiak merkaturatzeko enpresetan lan egiten duten gizonen kasuan, jatorduetatik kanpo fruta jateko ohitura nabarmena da, edozein adin tartetan (% 36,7).



Barazkien eta ortuarien kontsumoa

Emakumeek maizago kontsumitzen dituzte elikagai horiek, % 96k, eta gizonen kasuan % 63ra jaisten da. Sexu bien kasuan, gehien kontsumitzen duen adin-tartea 36-50 urtekoa da, eta elikagai horiek bazkarian eta afarian gehitzen dira kontsumitzen dituztenen % 63ren kasuan.

Kontsumitzaileen % 26k barazki freskoak baino ez dituzte kontsumitzen; % 21ek, freskoak eta izoztuak, % 15ek freskoak eta kontserban, eta % 38k hiru modutan.

Oro har letxuga, lekak eta tomateak dira bi sexuetaoek gehien kontsumitzen dituztenak, adin tarte batetik bestera alde handirik gabe. Fruten kasuan gertatzen zenaren alderantziz, seguru aski sasoiaren arabekoak direlako, barazkien kasuan lehentasunak bat datoz: letxuga, lekak eta tomateak.



Ondorioak

Fruten eta barazkien kontsumoa nutrizio-piramidearen arabera gomendagarria litzatekeenetik eta nazioarteko gomendioetatik urrun dago.

Fruten kontsumoa barazkiena baino hedatuagoa dago, seguru asko barazkien kontsumoa txikiagoa da prestatu egin behar delako, nahiz eta kasu askotan hori lan gehiegi ere ez izan.

Beharrezkoa dirudi fruten eta barazkien kontsumoa sustatzea, azken horiena bereziki. Azpimarratu behar da fruten artean zitrikoak direla arrakastatsuenak, eta barazkien artean, letxuga.

Konpromisoa

Galdetegiaren emaitzak ikusita, DYArek mediku-taldeak bestelako elikagaien kontsumoa ere baloratzen segitzeko konpromisoa hartu du, Mercabilbaon lan egiten duten nutrizio-profila ebaluatzeko.

Irabazi-asmorik gabeko beste elkarte eta erakunde batzuekin lankidetzatza

Mercabilbaok hainbat erakunderi lagundu dio 2012an: Minbiziaren aurkako Elkarteak; Txernobileko Umeak Bizkaia (Txernobileko hondamendiak kaltetutako umeei laguntzeko GKE) eta Caritas. Caritas aukeratu da aurten, gainera, Bilbon egin zen fruta-otzaren zozketatik lortutako dirua jasotzeko.

“5 al día” fundazioa

Mercabilbao fundazio horren bazkide-laguntzailea da; frutak eta barazkiak egunero kontsumitzeak dakartzan onuren berri gizarteari ematea da fundazio horren xedea.



Jakien eta instalazioen osasun-kontrola

Produktua	Merkaturatutako Kg tan	Ikuskapen kopurua	Lagin kopurua	Konfizkazio kopurua	Konfizkatutako Kg-ak
Arrain eta itsaskiak	29.151.958	929	181	748	82.667
Fruta eta barazkiak	212.890.975	903	58	845	538.052

Arrainak harrapatzeko edota frutak eta barazkiak ekoizteko prozesu guztietan higieena funtsezko alderdia da, eta merkataritza-sektorean aintzat hartu behar da, produktuaren bizitza baliagarria, eta haren osasun-kalitatea, batik bat, baldintzatuko dietelako.


Osasun-agintaritzak egunero egiten ditu azterketak Mercabilbaon, honako alderdi hauek egiaztatzeko:

- Instalazioen eta produktuen manipulazioan garbitasuna eta higieena.
- Elikagaien ontziratzea eta etiketatzea.
- Elikagaiak gordetzeko eta erakusteko baldintzak.
- Langileen prestakuntza eta higieena.
- APPCCan oinarritutako autokontrol-planak ezartzea.
- Merkaturatutako elikagaien kalterik eza.

Gainera, merkaturatzen diren elikagaiak egiaztatzeko asteroko laginketa egiten da:

- Saldutako jakiek indarrean dagoen legediak ezartzen dituen irizpide mikrobiologikoak bete dituzten.
- Saldutako jakiek hondakinei, kutsatzaileei eta debekatutako substantziei buruzko erkidegoko legedia bete duten.

Parametroa	Produktua	Lagin kopurua	Betetzen dute	Ez dute betetzen
Mikrobiologikoak	Arrantza produktuen	71	68	3
Parasitoak	Arrantza produktuen	80	50	30
Biotoxinak	Arrantza produktuen	20	20	0
Kontserbatzaileak	Arrantza produktuen	29	27	2
Hondakin kutsatzaileak	Arrantza produktuen	19	17	2
Histamina/NBVT	Arrantza produktuen	31	31	0
Hondakin kutsatzaileak	Entsaladarako barazkiak	30	30	0
Mikrobiologikoak	Entsaladarako barazkiak	28	28	0



Urraketa egon den kasu guztietan neurri zuzentzaileak eskatu dira, eta agiri bidez ziurtatu dituzte gure hornitzaileek, eta agintari eskumendunek egiaztatu.

2012ko merkaturatzea

2012ko merkaturatzea egonkorra da, batez ere gaur eguneko egoera ekonomikoa kontuan hartuta. 245.924 Tm erregistratu dira, 2011n baino % 0,22 gutxiago.

Urte bukaeran merkatuaren okupazioa % 99,51koa zen salmentan eta merkataritzako lokaletan, eta % 99 Jarduera Osagarrietan.

Prezioek igoeratxoia izan dute, fruten eta barazkien osokoan (% 2,15), bananen prezioa (-% 13,68) eta pataten (-% 5,41) prezioa nabarmen jaitsi den arren.

Arrainen eta itsaskien kasuan, multzo horretako batez besteko prezioari eutsi zaio, arrain freskoaren eta izoztuen prezioa igo delako, eta horrek leundu egin du itsaskien jaitsiera.

Merkatu balioanitzean prezioek gorantz segitzen dute, batez beste % 15eko igoerarekin. Sektoreen arabera, arrainaren eta itsaskien merkaturatzeak beheranzko joera du, eta 2012an sarreratan % 2,81 gutxiagorekin itxi du; fruten eta barazkien merkatuak, aldiz, igoeratxo bat izan du, % 0,35. Balioanitzen sektorea (haragia, arrautzak, esnekiak...) merkaturatzen denaren % 1,58 da, eta berriro ere merkatu-kuota galdu du, erregistroak % 9,85 jaitsi dira.



Frutak eta barazkiak

2012an, fruta freskoaren kontsumoak bere horretan iraun du 2011ren aldean (-0,08), gastua % 1,51 jaitsi da bananaren prezioa % 13,68 jaitsi delako. Barazkien kasuan, kontsumoa % 1,43 handitu da, eta gastua % 8,33. Hala ere, bertako produktuen merkaturatzeak atzera egin du apur bat (% -0,01); prezioak, aldiz, gora egin du % 12.

Fruten eta Barazkien merkaturatzeak 302 egun baliodunetan aritu izan dira lanean. Merkaturatzearen eguneko batez bestekoa 705 Tm izan da, eta urteko guztizkoa 213.000 Tm baino gehiago. Hileko erregistrorik onenak maiatzetan, ekainean eta martxoan izan dira.

Barazkien artetik gehien saldu diren produktuak patata, tomatea, letxuga, piperra, tipula, azak eta lekak izan dira. Aurreko urtearen aldean, azpimarratu behar da kontsumoa igo egin dela honako kasu hauetan: tomatea (+ % 5,63), azak (+ % 3,91), porrua, kalabazina, luzokerra, zerba, ilarra, baba, baratxuria eta tipula. Balantzaren kontrako aldean zuztar eta hostodun barazki batzuk daude: ziazerba (- % 26), eskarola (- % 2,05), letxuga (- % 0,98) eta apioa.

Laranja izan da merkaturatzearen presentzia handiena izan duen fruta. 2012an, frutaren kontsumoan % 26,2 izan zen. 2011ren aldean, zitriko horren erosketa % 1,2 jaitsi zen, eta gastu totala, aldiz, jaitsi egin zen % 3,2 batez besteko prezioa jaitsi egin zelako, eta kiloko 0,60 euroan geratu zen.





Frutaren kontsumoaren % 15 bananari dagokio, eta kontsumoa % 4,08 hazi da 2011koaren aldean. Aitzitik, gastua % 10 murriztu zen batez besteko prezioa asko jaitsi zelako, kiloko 1,01 eurora arte. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak etxeetako fruta freskoaren 2012ko kontsumoari buruz egindako azterlan baten datuen arabera, fruta horren kontsumoa orokorrean igo da, eta nabarmena da pertsona bakoitzeko kopuruaren igoera heldu independente (+ % 10,5) eta erretiratuen (+ % 6,7) kasuan.


Gehien saldu diren fruten zerrendan sagarra hirugarren dago, guztira 20.136 Tm-rekin, 2011n baino % 0,46 gehiago, eta batez besteko prezioan % 5eko igoerarekin.

Jaitsiera nabarmenena fruitu lehorren kasua izan da (- % 10,27). Fruta tropikalen eta hezurdunen merkaturatzea ere jaitsi egin da, % 2,64 eta % 2,39 hurrenez hurren.


Frutak eta barazkiak merkaturaketa

	KGS. 2012	KGS. 2011	Aldatza	%	€/kg. 2012	€/kg. 2011	Aldatza	%
Frutak	122.107.043	123.058.081	-951.038	-0,77	0,96	0,95	0,01	1,05
Barazkiak	53.808.381	53.045.682	762.699	1,44	0,91	0,84	0,07	8,33
Patatak	15.379.741	15.295.379	84.362	0,55	0,35	0,37	-0,02	-5,41
Bananak	21.370.968	20.532.986	837.982	4,08	1,01	1,17	-0,16	-13,68
Baserritarrak	224.842	224.828	14	0,01	1,03	0,92	0,11	11,96
GUZTIRA	212.890.975	212.156.956	734.019	0,35	0,95	0,93	0,02	2,15

2011 eta 2012.eko hileroko eboluzioa (Tm.tan)



Merkaturatzea toneladen urteko eboluzioa





	2012	2011	Aldatza	%
FRUTEN GUZTIRA	143.478.032	143.591.067	-113.035	-0,08
Zitrikoak	49.221.588	49.433.524	-211.936	-0,43
Hazidunak	27.786.006	27.766.710	19.296	0,07
Bananak	21.370.968	20.532.986	837.982	4,08
Hesurdunak	19.471.869	19.948.397	-476.528	-2,39
Fruitu Txikia	7.883.616	8.031.700	-148.084	-1,84
Tropikalak	9.197.639	9.447.107	-249.468	-2,64
Meloia	4.216.202	4.180.670	35.532	0,85
Sandia	2.129.761	1.991.325	138.436	6,95
Fruitu Idorrak	1.108.257	1.235.166	-126.909	-10,27
Bestelako Frutak	1.092.126	1.023.482	68.644	6,71
BARAZKIEN GUZTIRA	69.412.943	68.565.889	847.054	1,24
Sustrai eta Tuberkuoloak	18.534.565	18.495.733	38.832	0,21
Bulboak	9.233.783	9.198.375	35.408	0,38
Zurtoinak eta Hostoak	8.572.132	8.612.528	-40.396	-0,47
Infloreszentziak	4.905.866	4.749.838	156.028	3,28
Fruituak	26.824.552	26.167.000	657.552	2,51
Alea	66.787	62.997	3.790	6,02
Belar Lurrintsuak	106.231	107.426	-1.195	-1,11
Perretxikoak	1.169.027	1.171.992	-2.965	-0,25
FRUTEN ETA BARAZKIEN GUZTIRA	212.890.975	212.156.956	734.019	0,35

Fruta eta barazkien prezioen bilakaera

Urteko lehenengo seihilabetekoan, fruten eta barazkien prezioa negatiboa zen, bananaren eta patataren kotizazioaren jaitsieragatik, baina bigarren seihilekoan joera hori galgatu egin da.

Produktu bakoitzaren batez besteko kotizazioei erreparatzen badiegu, joera orokorra goranzkoa dela ikus daiteke, eta kasu batzuetan, portzentajeak altuak dira. Hainbat zitrikoren prezioaren igoera azpimarratu behar da: limoia (+ % 30), pomeloa (+ % 8). Gauza bera gertatzen da hezurdun frutekin, eta gereziaren + % 17 eta mertxikaren + % 5aren artean egon da. Hala ere, abrikota bezalako frutetan ere jaitsiera nabarmena izan da (- % 12).

Hazidun fruten prezioak ere gora egin du. Sagarra % 5 igo da batez beste; udarea, % 4,7. Fruta tropikalen kasuan, azpimarratu behar da multzo honetako frutarik salduenen prezioa igo egin dela: kiwia (+ % 9,8) eta anana (+ % 3,9).


Fruta txikiari dagokionez, baratze-marrubiaren kotizazioa jaitsi egin da 2011ren aldean (- % 7) eta mahatsak prezioari eutsi dio.

Beste alde batetik, udako frutetan ere prezioen jaitsiera nabaritzen da; hala ere, meloiak eutsi egiten dio, eta angurriarena % 13 jaitsi da.

Barazkiei dagokienez, kotizazioa hobetu dutenak gutxi dira, baina igoerak nabarmenak izan dira. Kalabazina (+ % 45), tomatea (+ % 28,7), letxuga (+ % 12), leka (+ % 17) eta azenarioa (+ % 7,6).

Beheranzko prezioen erregistroaren buru baratxuria dago (- % 22), tipula (- % 21), azak (- % 11) eta patata (- % 5). Piperrak prezioari eutsi dio.

Prezioen urteko eboluzioa



Fruta eta barazkien jatorria

Barne-merkatutik datozen barazkigintza/frutagintza produktuen sarrera % 1,18 handitu da. Inportazioen portzentajea jaitsi da, batez ere barazkiena.

Merkaturatutako fruten % 31 Valentziako Erkidegotik datoz, eta haren ekarpenak bere horri eutsi dio, Kanariak eta Kataluniak jarraituta, % 14 baino zertxobait gehiagorekin. Barne-merkatuko barazkiei dagokienez, Andaluziak lehenengo postuari eusten dio merkaturatutako ortuari dagokienez, eta 2011ren aldean % 1,42ko igoera izan du, ondoren datoz Errioxa (% 18,6) eta Gaztela-Leon (% 13,6).

Azpimarratu behar da Andaluzia, Katalunia, Kanariar Uharteak, Gaztela-Leon eta Nafarroako produktuen sarrera handitu egin dela. Aldiz, merkatuko kuota galdu dute Murtziatik, Gaztela-Mantxatik eta Extremaduratik datozen produktuek. Gainerako erkidegoek euren ekarpenei eusten diete.

Inportazioko fruten eta barazkien sarrera % 14,8 murriztu da Afrikatik, Erdialdeko Amerikatik eta Ozeaniatik datozen partidak handitu diren arren.

Inportazioko fruten eta barazkien artean, azpimarratzekoak dira sagarrak, laranjak, baratze-marrubia, meloia, bananak, bai eta fruta tropikal asko ere, kiwia eta anana buru direla. Barazkietan, gehien inportatzen diren produktuak honako hauek dira: patatak, tomateak, piperrak, lekak, azak, gari-zainzuriak, tipulak, berakatzak eta gastronomia txinatarreko produktuak.



Fruta eta barazkien
jatorriak (Tm.tan)

	Frutak	%	Barazkiak	%	Guztira	%
BANEKOAK	120.763.664	84,17	64.403.617	92,78	185.167.281	86,98
C. Valenciana	44.464.203	30,99	6.290.710	9,06	50.754.913	23,84
Andalucía	8.968.977	6,25	19.095.641	27,51	28.064.618	13,18
Canarias	20.493.926	14,28	0	0,00	20.493.926	9,63
Cataluña	19.545.473	13,62	26.431	0,04	19.571.904	9,19
La Rioja	5.885.016	4,10	12.953.365	18,66	18.838.381	8,85
Murcia	8.079.064	5,63	6.568.563	9,46	14.647.627	6,88
Castilla-León	1.166.218	0,81	9.490.908	13,67	10.657.126	5,01
Aragón	7.988.719	5,57	1.227.975	1,77	9.216.694	4,33
País Vasco	189.387	0,13	5.278.813	7,60	5.468.200	2,57
Navarra	1.006.197	0,70	2.030.732	2,93	3.036.929	1,43
Castilla-La Mancha	1.632.476	1,14	1.270.276	1,83	2.902.752	1,36
Extremadura	535.834	0,37	145.409	0,21	681.243	0,32
Madrid	657.079	0,46	0	0,00	657.079	0,31
Galicia	144.174	0,10	448	0,00	144.622	0,07
Cantabria	6.921	0,00	24.346	0,04	31.267	0,01
KANPOKOAK	22.714.368	15,83	5.009.326	7,22	27.723.694	13,02
C. Europea	6.714.910	4,68	2.062.496	2,97	8.777.406	4,12
Sudamérica	6.686.759	4,66	96.546	0,14	6.783.305	3,19
África	3.777.369	2,63	2.849.192	4,10	6.626.561	3,11
Centroamérica	3.893.304	2,71	0	0,00	3.893.304	1,83
Oceanía	1.529.017	1,07	0	0,00	1.529.017	0,72
Asia	77.239	0,05	0	0,00	77.239	0,04
Norteamérica	35.770	0,02	1.092	0,00	36.862	0,02
GUZTIRA	143.478.032	100	69.412.943	100	212.890.975	100

konpromisoa

Arrainak, itsaskiak eta izoztutako produktuak

Arrainaren merkatuan 251 egun baliodunetan aritu da lanean, eguneko batez beste 116 Tm baino gehiagorekin. Erregistrorik onenak, maiatzean, urrian eta abenduan izan dira.

Arrain eta itsaski freskoen merkaturatzearen jaitsiera orokorra izan da, eta aurreko urtearen aldean % 3,81ekoa dela kalkulatu da; aldiz, salmentarako batez besteko prezioa dibertsifikatu egin da: arrain freskoaren prezioa % 0,97 igo da, eta itsaskiarena % 4,06 jaitsi. Izoztuen multzoa da positiboa den bakarra, bai Tm-tan bai prezioan.

Antxoaren sarrera 2011koa baino txikiagoa izan da, eta batez ere sarrera nazionalak galdu du, % 21,2. Horrek zuzenean eragiten du prezioaren igoeran. Inportazioko antxoarena % 12 igo da, eta jatorri nazionalekoarena % 19 igo.

Bizkaiko Golkoko antxoa martxoan itzuli zen merkatura. Europako batasunak, 2012an, Kantauriko antxoaren harrapaketa % 30 murriztea erabaki zuen.



Arrainak merkaturaketa	KGS. 2012	KGS. 2011	Aldatza	%	€/kg. 2012	€/kg. 2011	Aldatza	%
Arrain	18.149.573	18.952.741	-803.168	-4,24	5,21	5,16	0,05	0,97
Itsaski	5.000.123	5.114.920	-114.797	-2,24	6,63	6,95	-0,32	-4,60
Izoztuak	6.002.262	5.926.560	75.702	1,28	5,95	5,89	0,06	1,02
GUZTIRA	29.151.958	29.994.221	-842.263	-2,81	5,61	5,61	0,00	0,00

Murritzpen honen arrazoa antxoaren biomasaren murrizpena izan da; kezkarria ez den arren, harrapaketen kopurua jaistera behartu zuen. Datu horrek ez zituen bereziki kezkatu Kantauriko kofradiak, murrizpena nabarmena bada ere, harrapaketak 2011koak baino handiagoak izan ziren.

Gainera, sektoretik babesa eman zitzaion antxoaren kuota murrizteari, horrela espeziearen lonjako prezioa nabarmen jaistera saihesten zelako, eta kontserba-fabrikek udaberriko kanpainatik kanpo harrapatutako bokartengatik interesa txikiagoa zelako, udaberrian, bokartek duten gantz kopuruagatik kontserbarako egokiagoak baitira.


Bizkaiko Golkoko antxoa-sasoaren amaierak eta hegaluzearen kanpainaren hasierak bat egiten dute. Euskal arrantzaleek hegaluzearen kanpaina itxi dute azken bost urteotako harrapaketa-bolumen handienarekin; izan ere, euskal portuetan 6.477 tona hegaluze porturatu dituzte, eta horietatik 813 Tm Mercabilbaon banatu dira. Handizkako biltegietako batez besteko salmenta-prezioa 5,96 €/koa izan da, 2011n baino % 12,7 gutxiago.

konpromisoa


Espezie batzuen kopuru handiagoak sartzeak, kasu askotan, salmenta prezioaren jaitsiera eragiten du. Horixe da honako hauen kasua: lotxa, krabarroka, mihi-arrain ertain eta txikia, legatza, bisigua, itsas zapoa eta erreboila, bai harrapatua bai haztegikoa. Bestela, sarrera gutxiago eta prezio handiagoaren kasuan, honako hauek: bakailaoa, txipiroia, hegalaburra, aingira, paneka, txitxarroa, merlenka, olagarroa eta sardina. Espezie horietako batzuk atzera egin dute erregistroetan, nabarmen gainera: aingirak % 24, olagarroak % 37, eta sardinak, % 16.

Itsaski freskoaren erregistroa jaitea bereziki krustazeeoen (buia, abakandoa, txangurroa, A Coruña-ko zigala (- %10,6), nekora (- % 8,62) eta otarraina) eta zenbait moluskuren (txirla, karrakela, txirla txikia eta muskuilua) sarrera txikiagoaren ondorioz da.

2011 eta 2012.eko hileroko Eboluzioa (Tm.tan)



Merkaturatzea toneladen urteko eboluzioa



Arrain, itsaski eta
izoztuaren sarrerak
(kg. tan)

	2012	2011	Aldatza	%
ARRAIN GUZTIRA	18.149.573	18.952.741	-803.168	-4,24
Arrainak	15.746.031	16.800.447	-1.054.416	-6,28
Akuikultura-koa arrainak	1.800.289	2.103.067	-302.778	-14,40
Besterik	603.253	49.227	554.026	1.125,45
ITSASKI GUZTIRA	5.000.123	5.114.920	-114.797	-2,24
Moluskuak	1.059.811	1.070.928	-11.117	-1,04
Oskoldunak	1.265.521	1.344.988	-79.467	-5,91
Akuikultura-koa moluskuak	2.674.791	2.699.004	-24.213	-0,90
IZOZTUAREN GUZTIRA	6.002.262	5.926.560	75.702	1,28
Arrainak	1.409.804	1.646.363	-236.559	-14,37
Moluskuak	1.613.022	1.574.201	38.821	2,47
Oskoldunak	1.164.666	1.131.052	33.614	2,97
Besterik	1.814.770	1.574.944	239.826	15,23
ITSASKI ETA IZOZTUAREN GUZTIRA	29.151.958	29.994.221	-842.263	-2,81



Arrainaren eta itsaskien prezioen bilakaera


Aurretik aipatu dugun bezala, arrain freskoaren prezioa igo egin da eta itsaski freskoarena, aldiz, nabarmen jaitsi. Prezioa garestitu duten arrainen eta moluskuaren artean, olagarroa aipatu behar da; bigarren urtez, nabarmen garestitu baita (+ % 20), bai eta sardina ere, % 16.

Haztegiko arrain eta itsaskiak jaitsi egin dira (urraburua, erreboiloa, izokina, txirla, muskuilua eta otarraina), baina salbuespen batzuk ere izan dira, hala nola amuarraina eta lupina, horiek kotizazioa igo dute eta.

Beheranzko ildo honetan honako hauek ere badaude: angula (- % 11), harrapaketako urraburua (- % 12,7), itsas oilarra, liba eta bakalada. Eta itsaskien artean, harrapaketako txirla (- % 3,9), A Coruña-ko zigala (- % 4,3), ganba freskoa (- % 2,4), izkira eta nekora.

Izoztuen kasuan, bai arrainari bai itsaskiei dagokienez, prezioen joera beheranzkoa da, atunaren, txipiroiaren, txibiaren eta legatzaren (+ % 1,2) kasuan izan ezik.

Prezioen urteko eboluzioa



Arrainen eta itsaskien jatorria

Inportazioen ehunekoa handitu da; 2012an, merkaturatutako guztiaren % 39 izan zen. Oro har, Kantauritik datozen espezieen sarrera jaitsi egin da, Asturiaseko portuetan izan ezik, horietan sarrerak hobetu egin dira eta. Euskal portuetan jasotako arraina % 1,78 jaitsi da, eta itsaskien sarrera % 1,95 igo.

Galiziako portuek euren hegemoniari eutsi diote itsaski freskoen (guztizkoaren % 52,6) eta izoztuen hornitzaile nagusi izateari dagokionez; hala ere, 2012an Erkidego horretan erregistratutako zifra osoa % 1,62 jaitsi da, nahiz eta izoztuen igorpenak handitu.

Mediterraneoko sarrerak jaitsi egin dira, nahiz eta Valentziako Erkidegoaren arrain eta itsaski freskoen ekarpena hobetu. Kanarietako arrainen erregistroa % 116,6 hazi da, batez ere atunaren eta hegaluzearen igorpenengatik.

EEEk inportazioen ehunekoei eutsi die (% 20) produktu izoztuei esker, arrain eta itsaski freskoen kopuruak 2011n baino baxuagoak direlako. Joera hori bera hautematen da EFTAko herrialdeetako inportazioetan.

Alde positiboan, Hego Amerika eta Ipar Amerikatik ekarritako arrainaren eta Afrikako izoztuen eta itsaskien sarrerak daude. Erdialdeko Amerikako izoztuen sarrerak ere handitu egin dira. Inportatutako produktuei dagokienez, antxoa merkaturatutako antxoaren guztizkoaren % 23 da. Espezie horren % 87 Frantziatik dator, eta gainerakoa Italiatik eta Portugaletik.

Itsaski freskoari dagokionez, inportatutako guztizkoak produktu horien sarrera guztien % 39,5 da. Zifra hori honako hauen artean banatzen da: Erresuma Batua (% 28,64), Frantzia (% 5,6), Italia (% 4,4), AEB (% 0,48), Holanda (% 0,24) eta Maroko (% 0,04).

Haztegiko arrainaren % 93,4 inportatua da. Bolumen handiena izokinari dagokio (% 59), Norvegiatik eta Danimarkatik datorrena; % 17,9 Greziako, Frantziako, Erresuma Batuko eta Portugaleko lupiari dagokio. Greziako eta Frantziako urraboruaren sarrera inportatutako haztegiko arrainaren % 16,2 da, eta % 0,31 Danimarkatik, Erresuma Batutik, Holandatik, Portugaletik eta Frantziatik datorren erreboilari dagokio.

konpromisoa

Arrain, itsaski eta
izoztuak hornikuntza
(tm.tan)

	Arrain	%	Itsaski	%	Izoztuak	%	Guztira	%
BANEKOAK	13.467.957	74,21	3.024.410	60,49	1.272.134	21,19	17.764.501	60,94
Galicia	3.917.752	21,59	2.634.747	52,69	167.009	2,78	6.719.508	23,05
País Vasco	5.070.544	27,94	42.613	0,85	92.894	1,55	5.206.051	17,86
Asturias	1.242.971	6,85	681	0,01	0	0,00	1.243.652	4,27
Andalucía	970.413	5,35	134.508	2,69	0	0,00	1.104.921	3,79
Cantabria	793.964	4,37	211.351	4,23	10.372	0,17	1.015.687	3,48
Cataluña	601.093	3,31	202	0,00	76.746	1,28	678.041	2,33
C. Valenciana	607.644	3,35	308	0,01	40.224	0,67	648.176	2,22
La Rioja	9.644	0,05	0	0,00	482.501	8,04	492.145	1,69
Navarra	0	0,00	0	0,00	265.629	4,43	265.629	0,91
Murcia	197.139	1,09	0	0,00	0	0,00	197.139	0,68
Castilla-León	1.881	0,01	0	0,00	136.259	2,27	138.140	0,47
Canarias	50.248	0,28	0	0,00	0	0,00	50.248	0,17
Castilla-La Mancha	4.664	0,03	0	0,00	500	0,01	5.164	0,02
KANPOKOAK	4.681.616	25,79	1.975.713	39,51	4.730.128	78,81	11.387.457	39,06
C. Europea	3.378.137	18,61	1.950.027	39,00	556.745	9,28	5.884.909	20,19
África	275.961	1,52	1.898	0,04	1.653.124	27,54	1.930.983	6,62
Sudamérica	623	0,00	0	0,00	1.521.025	25,34	1.521.648	5,22
AELC	938.090	5,17	0	0,00	57.097	0,95	995.187	3,41
Norteamérica	88.805	0,49	23.788	0,48	571.598	9,52	684.191	2,35
Centroamérica	0	0,00	0	0,00	246.320	4,10	246.320	0,84
Oceanía	0	0,00	0	0,00	92.421	1,54	92.421	0,32
Asia	0	0,00	0	0,00	31.798	0,53	31.798	0,11
GUZTIRA	18.149.573	100,00	5.000.123	100,00	6.002.262	100,00	29.151.958	100,00

Balio anitzeko pabiloia

Balio anitzeko pabiloian gaur egun 14 salmenta postu daude okela, arrautzak, esnekiak, izoztuak, gozokiak eta elikagaiak orokorrean saltzeko, eta 8 postu biltegitratzeko, frutak eta barazkiak, arrainak eta itsaskiak eta oilaskoak prestatzeko eta banatzeko, eta 16 enpresak kudeatzen dituzten 5 biltegi logistika lanak egiteko.

2012an, sektore horretan 247 lanegun izan dira. Urteko merkaturatzea 3.882 Tm-koa da, 2011n baino % 9,85 gutxiago.

Atzerapen horrek pabiloi honetan merkaturatutako produktu guztiak hartzen ditu, batez ere esnekiak (- % 59,75), esnea (- % 21,01) eta oilaskoak (- % 13,01). Behikiak (% 0,58) indizeak hobetu ditu.

Prezioek beheranzko joera dute salbuespen batzuk izan ezik; arrautzak, % 34 igo direlako, eta oilaskoek, batez besteko prezioa % 4,7 delako. Esneak prezioari eutsi dio, eta behikiaren (- % 2,67) eta arkumearen (- %,0,71) prezioa jaitsi da.


Balio-anitzeko merkaturaketa (kg./l.)

	KGS. 2012	KGS. 2011	Aldatza	%	Euros/kg 2012	Euros/kg. 2011	Aldatza	%
Arrautzeak	968.100	977.500	-9.400	-0,96	1,4	1,04	0,36	34,62
Esnea	663.707	840.224	-176.517	-21,01	0,75	0,75	0,00	0,00
Esneariak	44,116	70.476	-70.432	-99,94				
Besterik	1.646.583	1.783.844	-137.261	-7,69				
Orokorra Okelen Guztiko	559.055	633.677	-74.622	-11,78				
Bildotsak	8.349	8.441	-92	-1,09	11,06	11,14	-0,08	-0,72
Oilaskoak	112.377	129.189	-16.812	-13,01	2,41	2,30	0,11	4,78
Behikia	172.012	171.025	987	0,58	7,99	8,21	-0,22	-2,68
Haragi Besterik eta Embutidoak	266.317	325.022	-58.705	-18,06				
GUZTIRA	3.881.561	4.305.721	-4.305.721	-9,85	0,92	0,80	0,12	15,00


konpromisoa

Balio-anitzeko
merkaturaketa

Balio-anitzean merkaturatutako kg/l-en urteko eboluzioa



Balio-Anitzeko merkatuko batez besteko prezioen urteko eboluzioa





indarguneak

Eta aparteko emaitza ekonomikoarekin, Mercabilbaok, eragileak buru dituela, ekin eta ekin dihardu haren eraginpeko eremuan, nekazaritza eta elikagaien industriako erreferente izateko posizioa indartzeko eta finkatzeko.

2012ko ekitaldian Mercabilbao S.A.ren emaitza ekonomikoak 796.530 euroko onura du zergen ostean, edo bestela esanda, % 56,9ko hobekuntza izan du aurreko urteari dagokionez. Baliabideetan, oro har, ia 1.662 mila eurora iritsi zen Cash Flowa.

Honako hauek izan dira prestakuntzan eta emaitzaren bilakaeran kontuan izan diren aspektu garrantzitsuenak:

Diru-sarreraren bilakaera

Ekitaldian egindako salmenten zenbatekoa 3.938 mila eurora igo da, hau da, % 0,7, 2011ko ekitaldiarekin konparatuz. Negozio-zifraren bolumenean izandako aldaketa horren arrazoiak honako hauek dira, batik bat:


- Merkatuko tarifa orokorrak izoztuta eduki dira % 2,4koa izan den KPIren igoeraren aldean. Azpimarratu behar da 2012ko abenduan, merkatu guztien erabateko okupazioa izan zela.
- Hornidura-zerbitzuen diru-sarrerak % 9,3 igo dira, batik bat, erabiltzaileekin hitzartutako energiaren prezioa igo delako eta, horren ondorioz, ordain gisa, arlo honetako gastuak % 4,7 egin du gora, aurreko urteari dagokionez.

Ekitaldi honetan intsuldaketetatik etorritako diru-sarrerak gauzatu dira 25 mila eurotan, eta aurreko ekitaldian ez zen diru-sarrerarik egon kontzeptu horregatik. Diru-sarrera horiek arrainen merkatuko intsuldaketa batetik, fruta eta barazkien merkatuko intsuldaketa batetik, eta balioanitzeko merkatuko intsuldaketa batetik.


Finantzako emaitza garbiak 239.901 eurokoak izan dira, eta horrek ekitaldiaren % 30eko etekina adierazten du, 2011n izan zena baino % 2 gutxiago. Batez besteko finantza erabilgarritasuna % 5,6 igo da 2011, eta baliabideen batez besteko errentagarritasuna % 3,43-ra iritsi da.

Inbertsioak finantza-tresna seguruetan gauzatzen dira, eta finantza-entitateei kaudimenaren kalifikazioa eskatzen zaie.

SARRERAK



GASTUAK




Zerbitzuen eskaintza

Ustiaketagatiko gastuak % 2,6 murriztu dira, eta ustiaketagatiko etekina 557.819 eurokoa izan da, hau da, aurreko ekitaldiaren aldean % 112ko hobekuntza. Horren arrazoia, alde batetik, langileen gastuen murrizpena eta konponketetan eta mantentze-lanetan egindako murrizpenak dira.

Kanpoko zerbitzuek gastua eragin dute “Konponketak eta kontserbazioa” atalean, 324.529 eurokoa, % 26,8ko murrizpena; “Zaintza eta kanpoko aholkularitza” atalean, zerbitzuaren adjudikazioa duen enpresaren aldaketa egon da, eta kontzeptu horretako gastua 288.507 eurokoa izan da, horrek % 5,7ko murrizpena ekarri du; “Garbiketa eta isuriak”, 1.016.198 euro, eta “Argi indarraren eta uraren hornikuntza”, 954.588 euro. “Kanpoko beste zerbitzu batzuk” epigrafea azpimarratu behar da, 251.627 eurokoa, eta hor % 1eko igoera egon da.

Langile-gastuak % 14,6 jaitsi dira 2011koen aldean, batez ere, 20/2012 Dekretua betetzeko, sozietateko langile guztiei Gabonetako aparteko soldata kendu izanagatik, soldatak izoztu egin direlako eta Elkarkidtzia BGAEra erakundeak ekarpenak egiteko debekuagatik, Estatuko Aurrekontuei buruzko 2/2012 Legeari jarraikiz.

Mercabilbaok Etekinen gaineko Zergari dagokionez ordaindu beharrekoa 1.190 euro izan dira, zerga horri buruzko Foru Arauaren 36. artikulua aplikatzearen ondorioz, hau da, kuota likidoaren % 99ko hobaria. Hori ondorioztatzen da titulartasun pribatuko akzioak amortizatuta sozietatearen kapitala murriztuta, eta sozietatearen estatutuak aldatuta, kapital sozial osoa titulartasun publikokoa izan dadin.




Inbertsioak

Mercabilbao S.A.k 2012an egindako inbertsioa 808.903 eurokoa izan da; hortik, 676.701 euro tentsio altu eta baxuko instalazio elektrikoak egokitzeko erabili dira, eta 130.168 euro eremuaren segurtasuna handitzeko detekzio elektronikoko sistema perimetrala instalatzeko.


Baliabideak sortzea eta kaudimena

2012an cash flowa 1.662 mil eurokoa izan da, eta horrek % 29,74ko igoera dakar aurreko ekitaldikoaren aldean. Baliabideen sorkuntza hori Mercabilbaon egin diren inbertsioen finantzaketa-iturria izan da.



Aurrekoaren ondorioz, epe laburrerako kaudimena 6,76koa da, hau da, epe laburrean konprometituta dugun euro bakoitzeko, 6,76 euro ditugu horiek babesteko, eta horietatik 6,43 finantza-aktiboak dira.


Aktiboa



■ Ez arrunta

■ Arrunta

Ondare Garbi eta Pasiboa



■ Ondare Garbi

■ Pasibo arrunta

Era berean, gure autonomia mailak, funts propio gisa ondare garbia + pasiboaren guztizkoa hartuta, % 93,10eko balioa hartzen du.

Ekitaldi honetan, Santurtziko Udalaren titulartasuneko 259 akzio erosi eta amortizatu dira, sozietatearen estatutuen eskakizunak betez, horrela kapital soziala titulartasun publikoko akziodunek osatzen dute soil-soilik. Aurrezkoa lortzeko eta kudeaketa operatiboan arintasun handiagoa lortzeko Santurtziko Udalaren akzioen amortizazioa erosteaz gain, 2012an % 57 murriztu da Sozietateko administratzaileen kopurua.

Inguruaren ezegonkortasuna ikusita, 2013rako ikuspegiak zuhurtasuna izango du oinarri, eta horrekin batera, ahalegina eta konpromisoa, estrategia egokiari eusteko gure jardueraren ardatz izango diren baloreak.

Sarrerak	2012	2011
Negozioaren zenbatekoa	3.938.462	3.909.879
Arrain merkatua	653.241	653.221
Barazki eta fruituen merkatua	1.703.095	1.702.212
Hozkailu orokorra	356.392	363.948
Balio anitzeko merkatua	417.289	406.416
Merkataritza zentrua	244.442	232.163
Beste jarduera batzuk	564.003	551.919
Osagarri sarrerak eta gainerako kudeaketa	1.574.751	1.443.365
Salbuespenezko sarrerak eta dirulaguntzak	29.529	27.625
Sarrerak Guztira	5.542.742	5.380.869
Gastuak	2012	2011
Pertsonal-gastuak	1.125.066	1.317.587
Soldatak	849.884	971.878
Gizarte zamak	275.182	345.709
Amortizazioetarako zuzkidurak	865.670	773.605
Trafiko horniduren aldaketak	33.610	(638)
Bestelako ustiapen gastuak	2.960.029	3.025.153
Kanpo zerbitzuak	2.841.288	2.912.506
Zergak	118.741	112.647

Salbuespenezko gastuak	548	2.026
Gastuak Guztira	4.984.923	5.117.733
Ustiapenaren emaitza	557.819	263.136
Finantza emaitza positibo garbiak	239.900	245.160
Zerga aurreko emaitza	797.719	508.296
Elkarteen gaineko zerga	(1.189)	(769)
EKITALDIKO EMAITZA	796.530	507.527

Aktiboa	2012	2011
Aktibo ez Arrunta	9.728.536	10.124.520
Ibilgetu materiala	350	1.050
Finantza ibilgetua		
Aktibo ez Arrunta Guztira	9.728.886	10.125.570
Aktibo Arrunta		
Zordunak	314.266	433.406
Ekitaldi epe Finantza inbertsioak	8.069.960	6.797.216
Ekitaldi amaierako doikuntzak	12.925	5.261
Diruzaintza eta bestelako aktibo likido baliakideak	143.886	272.100
Aktibo Arrunta Guztira	8.541.037	7.507.983
AKTIBO GUZTIRA	18.269.923	17.633.553

(Euros)

indarguneak

Ondare eta pasiboa

2012

2011

Ondare garbi

Baliabide propioak

Kapital harpidetua

5.667.370

5.682.936

Erreserbak

10.543.596

10.118.561

Ekitaldiko Eraitza

796.530

507.527

Baliabide-Propioen Guztira

17.007.496

16.309.024

ONDARE GARBI GUZTIRA

17.007.496

16.309.024

Pasibo ez Arrunta

Ekitaldi epe luzera

0

0

Pasibo ez Arrunta Guztira

0

0

Pasibo Arrunta

Beste finantziario pasiboak

123.891

376.906

Taldeko Enprekin zorrak

13.563

Hartzekodun komertzialak

865.922

766.045

Beste zor ez komertzial batzuk

89.638

103.658

Ekitaldi epe laburrera

169.413

77.920

Pasibo Arrunta Guztira

1.262.427

1.324.529

ONDARE GUZTIRA + PASIBOA

18.269.923

17.633.553

www.mercabilbao.es



**GOXOA
GARDENA
GARIBIA**

**SABROSO
SEGURO
SALUDABLE**

merca **B**ilbao